


# ...eta Kitto!

696 zkia. 2009-X-30

ASTEKARIA



## Marokoko paisaiak liburutegian



Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844

**BETAURREKOAK  
BAZTERTZEKO  
AUKERA GUZTIAK  
ESKANTZEN DITUGU**





**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi, Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ihintza Fernandez

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**EZETSI.-** Ukatu, ezetz esan. "Bestiak behin eta berriro eskatu arren, ezetsi egin eban".

**EZEZAGUTU.-** Norbaiti ezikusiarrena egin. "Hurreratu nintzanian, ezezagutu egin ninduan".

**EZIÑESAN.-** Berbetarako traba euki, hitz totela izan. "Eziñesana eukan eskolara aurretik".

**EZJAKIÑIAN.-** Jakin gabe. "Ezjakiñian egindako okerrak, ez dau pekaturik".

## ESKUTITZAK

### PIRRITX ETA PORROTX-EN IKUSKIZUNA ATZERATUTA

Urteroko moduan **Pirritx eta Porrotx-en ikuskizuna** aurten ere abenduan antolatzen saiatu bagara ere, **ezinezkoa izango da**. ...eta kitto!ren gaindiko arrazoiak medio, pailazoen ikuskizuna 2010ean eskaini beharko dugu. Oraindik data zehatzik ez dago, baina otsaila-martxoan bueltan antolatzea dugu helburu. Aldizkariaren eta bestelako komunikabideen bidez ezagutaraziko dugu zein den ikuskizunaren data berria eta lekua.

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Laket-ontziendako amarratze falta orokorra da euskal kostaldean eta itxarofte-zerrenda oso luzea. Euskadin beste 3.000 atrakatze eraikiko bagenu, lau egunetan beteko lirateke. Orain dela hamarkada biko laket-arrantzaren boomak eta bela-ontzien modak eragin zuten ugalketa eta, arrantza jaitsi bada ere, jendeak euren itsas-ontziei eusten die zaletasuna dela-eta"  
(Pello Olazabal, Euskadiko Kirol Portuak-eko presidentea)


"Zergatik ez gehien kutsatzen duenak gehien ordaindu? Gastatutako gasolina kantitatearen arabera, prezioa garestitu daiteke, argi indarrarekin egiten den modura. Eta garraio publikoa dagoen tokian, auto erabilera zigortu; esate baterako, Londresen egiten den moduan, hirietan autoz sartzea kobratuz. Eta diru sarrerak garraio publikoa hobetzeko erabil genitzake"  
(Joseba Makazaga, EHUko irakaslea)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## autuan

### MUSIKA ESKOLARAKO IRAKASLEAK

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako irakasle plaza finko etendunak betetzeko lehiaketa-norgehiagoka egingo dute. Eskaerak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a izango da (hau barne). Irakasgaiak honakoak izango dira: klarinetea, oboea, txirula, musika-hizkuntza + koria eta txistua.

### BASTERRETXEAREN LITOGRAFIAK

Eibar Kantuan jaialdia antolatu zuen Deparkel Debabarrena Parkinson Elkarteak kontzertuan zozketatu zituzten lau litografiak entregatu dituela adierazi du. 'Elurrez estalitako zubia' lanaren erreproduzio bana jaso dutenak M<sup>o</sup> Pilar Agirre Maguregi (344), Valentín Guruzeta Retolaza (453), Alfonso Muñoz Egiguren (556) eta Maite Solagaistua Madinabeitia (1.299) izan dira. Bestalde, Deparkelek eskerrak eman nahi dizkie kontzertura joandako guztiei, aurkezleei, ikuskizunean lagundu zuten guztiei eta abestu zuten artistei.

### ITURRI BAT GUTXIAGO

Alkatetzak aditzera eman duenez, San Andres pasealekuan zegoen Amañako iturria estali egin dute, Udaleko Ingurugiro batzarraren eskaerari erantzunez. Urteak igaro dira iturri horrek iturburua galdu zuela eta Udalak sarritan jaso izan ditu herri-tarren kejak, osasunarentzat kaltegarria eta infekzio-gunea izateagatik. Bestalde, urbanizazio berrian iturri berri bi izango direla iragarri dute.

## Esperientzia Eskolaren ikasturte berria martxan

MARTITZENEAN HASI ZUEN IKASTURTE BERRIA ESPERIENTZIA ESKOLAK, BAINA KURTSO BERRIAREN AURKEZPENA AURREKO BARIKUAN egin zuten Armeria Eskolan MUGABEko Arantza Arrietak, Jose Luis Elorza Eusko Jaurlaritzako Etengabeko Formakuntzako Zuzendariak, Ernesto Murgiondo Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako arduradunak, Juan Angel Balbás Debegesako gerenteak, Francisco Javier Lamas Kutzako Aisialdi



eta Ingurugiro arduradunak eta Arrate Berasaluze Ikasten elkarteko ordezkariak.

Aurkezpenean etengabeko formakuntzaren garrantzia eta nagusiek gizartean betetzen duten funtzioarena azpimarratu zituzten. Bestalde, Esperientzia Eskolak "gero eta arrakasta

gehiago duen ekimena" dela azaldu zuten eta urtetik urtera izena ematen dutenen kopuruak gora egiten duela adierazi zuten. Ikasturtea hasi berri dutenek 6. promozioa osatzen dute eta honez gero eskolatik 1.088 tituludun irten dira (aurten beste 292 gehiago izango dira).

## Kanposantua ordutegi berezian zabalduko dute

URTEROKO MODUAN, DOMUSANTU EGUNA DELA ETA OHIKOA BAINO ASKOZ ERE JENDE GEHIAGO ibiliko dela aurrikusita, ordutegi berezian zabalduko dute kanposantua gaur bertan hasi eta astelehenera arte (astelehena barne): goizeko

08.00etatik iluntzeko 20.00etara egongo da hilerria joateko aukera, egun osoan ez baitute aterik itxiko. Horrez gain, Domusantu Egunaren biharamunean (astelehenean) kanposantuko kaperan meza ospatuko dute 11.00etan, hildakoen arimen alde.

## Ikasle ohien bazkaria

SAGRADO CORAZON (LA SALLE) IKASTE-TXEAN 1959-60 IKASTURTEAN BATXILERGOAREN SARRERAKO KURTSOA ikasi zutenek bazkaria egin zuten zapatuan. Meza entzun, hamarretakoa egin eta ikastetxea bisitatu ondoren, Kerizpe elkarte gastronomikoan bazkaldu zuten argazkian ikusten dituzuenak.



## Odol-emailei omenaldia Elgetan

URTEROKO MODUAN GIPUZKOKO ODOL-EMAILEEN ELKARTEAK DEBA BAILARAKO ODOL-EMAILEEI OMENALDIA eskaini die. Ekitaldia Elgetan izan zen, domekan, eta bertan Debagoiena zein Debabarrenako hainbat odol-

emailek (25, 40 eta 50 alditan odola eman dutenek) intsignia eta diploma bana jaso zuten, errekonozimendu gisa. Omendutakoen artean 25 eibartar izan ziren. Meza entzun ondoren, Espaloia Kafe Antzokian bazkaldu eta jaialdia izan zuten.






## PSE-EEK eta Alkarbidek hitzarmena sinatu dute

**ASTELEHEN GOIZEAN SINATU ZUTEN PSE-EE ETA ALKARBIDE ALDERDIEK GOBERNU PROGRAMARAKO AKORDIOA.** Hitzarmenaren sinadura berez tramite husta izan da eta alderdi bakoitzeko ordezkari bik sinatu dute (Miguel de los Toyos eta Arcadio Benítezek sozialisten izenean eta Mertxe Garate eta Jesús Rementeriak Alkarbideren izenean). 2007ko

Udal Hauteskundearen ondoren EArekin sinatutako hitzarmen bera sinatu dute gaur, *“Erre-bali dagokion puntua izan ezik. Proiektuaren nondik norakoak argitu arte puntu hori hitzarmenetik kanpora lagatzea erabaki dugu”*, adierazi du De los Toyos alkateak. Garatek, berriz, *“orain arte moduan, Eibar eta eibartarren alde”* lan egiten jarraitzeko asmoa berretsi du.




## Ezkerti buletina eskualdera zabaldu da

**EZKER BATUA-BERDEAK- EK ASTE HONETAN AURKEZTU DU EZKERTI BULETINAREN AZAROKO ZENBAKIA. BERRITASUN GISA,** orain arte izaera lokala zuen argitalpena eskualde osora zabaltzea erabaki dutela azaldu zuten alderdiko Debabarrenako ordezkariak, *“azken batean herri mailako proiektuak izanda ere, inguruko herriei ere eragiten dietelako”*. Aurkezpen ekitaldian Juan Luis Merino Debagoiena eta Debabarrenako dinamizatzaileak eta Eli Gómez (Eibar), Rosa Caballero (Er-

mua) eta Ignacio Aznal (Deba) hartu zuten parte eta buletinak dakartzan gaiari errepasoa emateko aprobetxatu zuten: Eibarren eskualde osoari zerbitzua emateko ospitalaren inguruko proiektua, Deban Sasiola harrobia ixteko eskaera, A Gripea eta adin-txikikoen zentruen inguruko politika desegokiak. Honez gero hurrengo alea prestatzen dihardutela aurreratu zuten: krisiaren inguruko monografikoa. Eta horren harira, aurrerantzean hilerro herri bakoitzean zenbat langabetu dagoen adieraziko duten kartelak ipintzen hasiko direla gaineratu zuten.

# anzorik anzo



## Errepidea Bariantetik Barakaldo kaleraino

Eibarko bariantetik Barakaldo kalera joango den errepidea egiteko obrak enpresa bati eman zaizkio 2.418.000 euroko kantitatean, eta zazpi hilabete eta erdian gauzatu beharko diralana. Errepide berriaren bitartez, bariantetik Urkizuko parke alborra joango da, Txarakuako trenbidea ekidituz, Electrociloseko Babes Ofizialeko Etxeetara iristea erraztuz eta Asua-Erreka kalea igaroz. Urteak darabilte proiektua gauzatu nahian, baina atzeratu egin da hainbat arrazoiengatik. Hasiera batean, Eusko Jaurlaritzak beste aukera batzuk planteatu zituen trenbidea igarotzea ekiditeko, baina lanen konplexutasunak orain onartu den proiektua aukeratzera eraman du Eusko Jaurlaritza. Horrela, proiektuen aldaketak, aurrekontu aldaketak eta lur-sailen desjabetze prozesua izan dira proiektua luzatzearen kausa nagusiak. Errepide berria Electrociloseko Babes Ofizialeko Etxeak erabilgarria izateko momentuako gauzatzea nahi zen, baina urteetako atzerapenarekin iritsiko da errepidea.

## eibar kalea

### Arane kalea

Bista Eder eta Urtzaile kaleen bitarteko kalea da Arane. Jata enpresak orain urte batzuk bete zuen tokian jasotako etxebizitza berriek kalea itxuraldatu baldin badute ere, gure herrian oso hedatuta dagoen kale-ereduari erantzuten dio: hau da, lantegiak eta etxebizitzak elkarren ondoan dituen kale-ereduari.

**Pegora kopurua: 11. Erroldatutakoak: 327.**



**asteko**  
**2'5 milioi**  
**datua**

euro jasoko ditu Debarrenako Mankomunitateak, herriko zaborrak jasotzearen truke.

Asteleheneko udalbatzan zergak ez igotzea erabaki bazen ere, zerbitzu horretan %2'03ko igoera izango da. Etxebizitza bakoitzak 31'22 euro ordainduko du zerbitzuarengatik hiru hilabeterik behin (ura eta estolderia ez dira hor sartzen).

## Ikasle Eguna Arrasaten

**AZAROAREN 7-AN IKASLE EGUNA OSPATUKO DUTE ARRASATEN.** Ikasle abertzaleak-ek azaldu dutenez, "10.30-etan hasiko gara, ikasle-topaketekin eta bazkaria doan izango da. Topaketa martxan dagoen bitartean, Sebero Altube plazan umeentzako jolasak, taloak, ikasle-dendak eta beste hainbat jarduera garatuko dira. 13.30etan kalejira abiatuko da, bazkaltzera joaten laguntzeko". 17.00etatik aurrerako programazioan, antzerkia, batukada eta ikasle musika maratoia izango dira eta 19.30etan manifestazioa abiatuko da Sebero Altube plazatik. Gauean, berriz, kontzertuak egongo dira karpa nagusian: Des-kontrol, KOP, Esne Beltza, Zea Mays eta Beste Bat taldeek joko dute hor eta ezker paretan, berriz, Radio Afu eta bokatak egongo dira. Sarre-rak Montekan erosi daitezke.

## Gobernu-Batzarreko politikariak "pertsonalki minduta"

**GOBERNU-BATZARRAK ETA PP ALDERDIAK EB-ARALAR KOALIZIOAK AURREKO ASTEAN KOMUNIKABIDEEI IGORRITAKO GUTUNEAN EGINDAKO SALAKETEI ERANTZUTEN** agerraldia egin zuten aurreko barixakuan eta "pertsonalki minduta" daudela adierazi zuten: "Gestore bezala min eman digute, baina batez ere pertsona bezala mindu gaituzte. Egindako akusazioak ez datoz bat egiarekin eta herritarren aurrean Udalaren funtzionamenduaren irudi faltsua eman dute". Gobernu-Batzarra osatzen duten zinegotziekin bat egin zuen Carmen Larrañaga PP-ko zinegotziak: "Gobernu-Batzarraren alde egin nahi dut, EB-Aralarrek joko zikina egiten diharduelako".

Miguel De los Toyos alkateak esandakoaren arabera, "EB-Aralarreko ordezkarien arabera dokumentuak ezkututzen dihardugu, eta batzuetan hori zuze-nean ez esan arren, beti laga-



tzen dute airean kontu hori. Udalak ez du inoiz informazioirik ezkutatu. Agian informazioa ez dute euren nahi izan duten epearen barruan jaso, baina gauzak ezin dira egun batetik bestera egin, prozesu bat daukate". Zentzu horretan, "EB-Aralarrek eskatu dituen dokumentu guztiak jaso dituela" dio alkateak.

### EB-Aralarren erantzuna

Agerraldi horren harira, koalizioak beste ohar baten bitartez adierazpen horiei erantzun die: "Gure kritika guztiak legezko argudio serioetan oinarritutakoak dira. Gestioa negargarria izan

del hain begibistakoa da, urte bi igaro ondoren udal lurzoru barik, merkatu plaza barik eta musika eskola barik gaudela, sekula saldu behar ez zena berreskuratzeko ahaleginak egiten. Eta berriz ere diogu informazioa ezkututzen digutela". Gauzak horrela, Gobernu-Batzarrari zein PP alderdiari abuztuan egindako proposamena berriz egin nahi diete: Errebalen inguruko eztabaida publikoa egitea, inplikaturako parte guztiek euren ikuspuntua azaltzeko eta agiriarekin zein txosten teknikoekin errealitatea erakusteko aukera izan dezaten.

## ABC enpresakoen salaketa eta manifestazioa

**EGUAZTEN EGUERDIAN ARRATE KULTUR ELKARTEAREN EGOITZAN ESKAINITAKO PRENTSAURREKOAN, ABC (ARIZAGA, BASTARRICA Y CÍA.) KOMPRESORE ENPRESAKO KOMITEAK** zuzendaritzaren jokaera jende-aurrean salatu zuen, "enpresa ixten dihardutela" uste duelako. Ion Garate eta Víctor Romero langileen ordezkariak azaldutakoaren arabera, "oraingo enpresa deskapitalizatzeko asmoarekin hainbat enpresa eratzen dihardute eta, horien inguruko informazioa eskatu dugun arren ez digute eman. Hala ere, enpresak berak zein Bizkaia eta




Gipuzkoako merkataritza erregistroak emandako agiriak begiratu, ABC-tik bertatik eratutako enpresa biren inguruko datuak lortu ditugu: Macharia 2008 S.L., 2.250.000 euroko kapitalarekin eta ABC Compressors Gestión de Compresores y Recambios S.L., 100.000 euroko kapitalarekin". Lantegiaren salmenten %40 osatzen duen jarduera osagarrien kudeaketari dagokio eta, ordezkariak berbetan "2008an horri eusteko ahozko akordioa lortu genuen arren, enpresak baieztatu digunez jarduera horren bereiztea lehentasunezko helburua da. Horrek balantzean emaitza negatiboa izatea eragingo luke".

Bestalde, Txina eta Brasilen produktorako lantegi bi eratzen dihardute: "Euren nazioartekotzea deitzen diote, baina guk horri deslokalizazioa esaten diogu. Gure diruarekin herrialde horietan enplegua sortu eta gure herrian, berriz, lanpostuak deuseztatzen dituzte". Azitaingo industrialdean dagoen enpresan 108 behargin daude eta enpresaren planteamenduaren arabera horietatik 37 soberan daude eta, gainera, piezen mekanizazioa desagertu daitekeela diote (produktio arloko beharginen %50 inguru). Egoera horren aurrean, bihar zapaturako manifestazioa deitu dute, Untzagatik 12.00etan abiatuta.

*Teknologia barrixek eguneroko bizitzako edozein arlo hartu dabe eta eten barik doiaz aldatzen. Horrek gauzak aldatu ditu hein batian, bizimodua teknologia horretxei egokitzen dalako, eta alderantziz. Sukaldian be igarri dabe aldaketia batzuk, hobeto esanda, gaur egungo sukaldietan egindako janarixetan.*

## Janarixak lehen moduan urtetzen dabela begittantzen jatzu?



**Fco. JAVIER ITURRICASTILLO**  
58 urte  
mekanikua

Sukaldaritzan kontuetan nahiko antziñakua naiz. Butanuakin egiten dot bazkarixa eta begittantzen jata holan hobeto kontrolatzen dala sua. Bitrozeramika eta holakorik ez dot erabili, baina begittantzen jata onagua dala butanua. Halanda be, produktuen kalidadia da garrantzitsuena.



**INMA GOMEZ**  
30 urte  
bihargiña

Janarixak ezbaridin urtetzen dabela begittantzen jata. Gogorazten dot amak egiten zeban janarixa, su-gozotan, ezbaridina zala, eta esan neinke nik egindako baba edo lentejak ez dirala bardiñak. Amak oin bitrozeramikia daka eta berari be ez jakoz bardiñ urtetzen. Suak garrantzixa daka.


**MARIMER MUÑOA**  
49 urte  
irakaslia

Neri gehixago gustatzen jatan janarixak lehen zelan urtetzen zeban. Begittantzen jata ez dala bardin urtetzen. Bitrozeramikia dakat eta kostatu egitten jako gauzak berotzia. Oin dala 10 urtetik dakat eta, aldatu ahal izanez gero, aukera bixak ipiñiko neuke: butanua eta elektrikua.



**JESUS LEKUONA**  
40 urte  
funzionarioa

Egixa esan, nik ez dot igarri janarixan ezberdintasun haundirik. Nik bitrozeramikia dakat eta begittantzen jata lehengo moduan egitten zan beridin urtetzen dala janarixa. Okelia egurra edo gasakin egitten danielan igartzen da, baiña bestela ez dot uste hainbesteariñokua danik.



**EGOITZA NAGUSIA**  
*Bidebarrieta 20 - behea, eskuma*

**FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- **Tanatorioa eta Errausketa labea**  
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**Mokka**  
interiorismoa

BARNE DISEINUA  
GREMIOEN KOORDINAKETA  
DISEINU GRAFIKOA  
PROYECTU TEKNIKOAK  
OHIALAK  
ALTZARIAK  
PAPERAK

Bidebarrieta 24. Eibar  
lf: 670580523

Liburutegiak Topaleku kanpaiñaren barruan, Eusko Jaurlaritzak bultzauta 'Munduko Paisaiak' programarekin bat egin dau Juan San Martin liburutegixak. Kanpaiñak Euskal Autonomia Erkideguan bizi diran etorkiñeri euren kulturari eutsi eta beraien ohiturak ezagutzera emoteko bidiak zabaltzia billatzen dau eta, horretarako, liburutegixak aukeratu dittu kulturen arteko topagune modura.

## Maroko protagonista izango da azaruan

**E**ibarko liburutegixak, EA-Eko beste hamarrek batera, 'Munduko Paisaiak' programa garatuko dau aurten be. Herri bakotxak atzerriko herrialde baten inguruko hainbat ekitaldi emongo dittu ezagutzera, liburutegixa ardatz izango daben hitzaldi, erakusketa, musika emanaldi eta bes-telakuekin,

Etorkiñak nolabaitteko pisua

daken herrixetan garatuko dan kanpaiñiak Txina, Ekuador, Rumania, Kolonbia, Al Magreb, Bolivia, Nigeria, Senegal, Nikaragua, Angola eta Errusiako errealidadiak gerturatuko deskuz, Eibarren ez eze Gasteiz, Bilbo, Ermua, Errenteria, Getxo, Markiña, Hernani, Iurreta, Zarautz eta Irungo liburutegixen inguruan antolatutako ekitaldixerri esker.



Antolau dittuen taillarren artian, hennaren ingurukua egingo da azaroaren 6xan. / S. HERNANDEZ



### Etorkiñen komunidaderik inportantiena gurian

Eva Alberdi Juan San Martin Liburutegiko arduradunak azaldu deskunez, "Eusko Jaurlaritzak bultzatzen daben kanpaiñia da. Iaz be parte hartu genduan eta esperientzia horren ondoren aurten be animau gara. Kanpaiñaren barruan herrialde bakotxaren inguruko

monografikuak antolatzen dira eta neuk Maroko aukeratu nebana, Eibarren daguzen atzerriar gehixenak bertakuak diralako. Holan, marokiarreri hillebetian euren kulturarekin lotutako ekitaldixekin disfrutatze eta bertakueri, barriz, Marokoko kultura hobeto ezagutzeko aukeria emoten detsagu. Azken batian, kanpaiñak liburute-

**AKONDIA**

**Albaitari Zentroa**

Julen Arano / M<sup>a</sup> Jesus Blanco

**Bittor Sarasketa, 12**

☎ 943 12 74 15

*Izadi*

**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**KATU**

**KALE**

**BIDEBARRIETA, 1**

**TABERNA**



## EVA ALBERDI, Liburutegiko arduraduna

*“Liburu bat apalian ipiñi aurretik bihar haundixa dago”*

**- Kanpaiñatik kanpora be hizkuntza aniztasun haundixa topau geinke liburutegixan, ezta?**

Hizkuntzak ikasteko materixalak arrakasta haundixa izaten dihardu. Kanpotar askok gaztelerez ikasteko erabiltzen dittue hamen dittugun baliabidiak. Oindiok be eskintza zabalagua dago ingeles / frantsesetik gaztelera euskerara baiño. Edozelan be, arlo horretan espezializauta daguan Bilboko liburutegia batekin hartuemon estua dakagu.

**- Oraingo liburutegixak eta beste sasoi batian ezagutu genduanak ez dake zerikusirik.**

Liburutegixa udaletxian egon zanian laguntzaille modura egin neban biharra eta han ez eguan aukera haundirik. Batez be ikasliak eta periodikuak irakortzera juaten ziran nagusixak erabiltzen eben, dana nahastauta eguan, ez eguan gauzak antolatzeko tokirik, bihargin bakarra egonda oso gatxa da jendia atenditzia, li-



buruak kokatzia eta beste kontu guztiak egittia. Portaleara etorri giñanian gauzak asko aldatu ziran, gauza bakotxerako tokixak preparau ziran, umiendako txokua, geure biharrerako bulegotxua... izan be, liburu bat apalian ipiñi aurretik bihar haundixa dago.

**- Teknologixa barrixak be euren pisua euki-ko eben...**

Sasoi barrixetara egokitzen jua biharra dago, bestela akabo. Fonduak etenbarik handitzen juatiaz aparte, sare bittartez beste liburutegixekin lotuta gagoz eta mensajero bittartez herri batetik bestera liburuak eruateko bide barrixa zabaldu da horri esker. Bestalde, interneten bloga daukagu eta hortxe be ahalik eta zerbitzurik zabalena eskintzeko ahalegiña egitten dogu.

ruaren 4kuan datillez egindako pastak, arbendolezko briouat-a, kakahuetezko briouat-a eta koko-pastak eta hurrengo egunekuan, barriz, kakahuete eta sesamo adarrak, koko eta txokolatezko pastak, ezti-gutziak eta gazela-adarrak.

Azaruaren 6xan, barriz, musikia izango da protagonista, 18.00etatik aurrera Mustak eskinduko dabon kontzertuan. Azaruaren 13rako SAFA andrazkuen alkartiak taillarrak antolatu dittue: kaligrafixa arabiarren, henna-apainketaren eta te zeremoniaren ingurukuak izango dira taillarrak.

Hitzaldi batekin segiduko dau programaziñuak: Hajar Samadik ‘Maroko, kontrastez betetako herrialdia’ izenburuko hitzaldixa eskinduko dau 18.00etan eta azaruaren 27rako, barriz, Marokoko ipuin-tradizionalen inguruko taillarra emongo dau arabieraz eta euskeraz. Eta hori guztia girotzeko, liburutegiko hormak apaintzen Jose Luis Irigoien Deporreko Argazkilaritza Batzordeko kidiaren Marokoko argazkixak ipintzeko asmua dake.

gixak kultura aniztasunerako topagunia izatea billatzen dau. Bestalde, programaziñua osatzen dabon ekitaldixak antolatzetarako orduan Eibarren bizi diran marokiarren laguntasuna eta inplikaziñua ezinbestekuak izan dira”.

### Taillarrak, musikia eta hitzaldixak

Kanpaiñaren barruan antolatu dittuen ekitaldixen artian lehelenguak arabiar gozogintzaren inguruko hitzaldi-taillarrak dira. Datorren astian, eguazten eta eguenian, arratsaldeko

19.00etatik 21.00etara egingo diran taillar bixetan Latifa Bellak emongo dittue gozogintza tipikuaren gaiñeko azalpenak eta, gaiñera, honako errezetak preparauko dittue parte hartzen dabonak (izen-emotia liburutegixan bertan egin bihar da): aza-

**02441**  
...eta kitto!-ko  
**GABONETAKO LOTERIA**

Loteria hartzailen artean, abenduaren 16an GABON-OTARRA zozketatuko da

salgai duzu:  
Mujika harategia  
Urkiñu prentsa  
Bolintxo “Ibarkarutze”  
Zabaleta okindegia  
Narrua konplementuak  
San Andres gozotegia  
Askasibar kirolak  
Kultu taberna  
Valenciaga jantzidenda  
Correos,  
Udal Euskaltegia  
AEK Euskaltegia  
Isasi okindegia  
Izadi loradenda  
Untzaga prentsa  
Dibutec fotokopiadenda

**Optika Beititu**  
0049000 Auzitxos

**Ondo entzun hobeto biltzenko**

Amplifon-ek, entzumen-konponbideetako munduko liderrak, honakoa eskaintzen ditzue:

- Entzumen-aterketa doan
- Probatu audifonok doan 30 egunez
- 50%ko deskontua edozein audifono erosterakoan
- Gainera, erabiltzaileranda, zure audifonoren aterketa doan egin eta pila pakete bat oparituko ditzugu

OPTIKA BEITITU - JULIAN ETXERERRIA, 13  
20600 EIBAR - 943 70 02 30  
(Ezizaki gurea telefonian bitarteko dira)

## TEEN- AJEA



Jone Uri, Miren Gisasola panderojolea lagun duela. Behean, azken Sagardo Egunean jardun zuen trikitilari taldea.

Soinua gurean tradizio handiko instrumentua izan da eta, agian horregatik, oraindik ere gazteen artean baditu jarraitzaile dezente. Korieta bat da Jone Uri 17 urteko soinujolea. Miren Gisasola panderoarekin lagun duela, azaroaren 8an Azkoitian jokatu den Euskadiko Trikitixa Lehiaketarako bidea hartuko du.

### JONE URIA, soinujolea: “Jaia eta soinua jotzen ibiltzea uztartzeko arazorik ez daukat”

**- Nolatan animatu zinen soinua jotzen hastera?**

Umetan, 7-8 urte nuenean hasi nintzen soinua nola jo ikasten, Adolfo Jainagarekin. Solfeo ikasten nengoen, baina aspertu egiten nintzen, instrumenturen bat jotea nahiago nuen, erakar-garriagoa egiten zitzaidan eta, aitak animatuta, soinua aukeratu nuen eta gaur arte.

**- Aukeratu daitezkeen instrumentuen artean ez da ba errezenetakoa...**

Egia da hasieran, eskua piskat hartu arte, kostatu egin zitzaidala, baina behin oinarria hartuta ez da bereziki zaila.

**- Soinujoleak ezinbestekoa izaten du panderojolearen laguntza. Zure kasuan norekin jarduten duzu?**

Miren Gisasolarekin batera, iazko txapelketara ere elkarrekin joan ginen. Bestela ere, jaietan eta bestelako ekitaldie-

tan jotera joateko bikotea osatzen dugu.

**- Gazteak izan arren, zuen agendan errepikatzen den hitzordurik baduzue?**

Bai, batzuk urterokoak izaten dira. Abuzturako Markinatik deitzen digute eta bestela, Eibarren, Santa Kurutzeko jaietan, Amañakoetan eta Aginagan urteetan joan gara.

**- Eta zelan bizi duzu jaia eta “lana” bateratzeko kontu hori?**

Oso ondo, gustura ibiltzen gara jaietan jotzen, giroan murgiltzeko arazorik ez dago. Txapelketetako kontua oso bestelakoa izaten da, urduriago egon ohi gara horrelakoetan.

**- Eta nolakoa izaten da txapelketetako giroa?**

Polita, baina joaten den jendeak oso maila ona izan ohi du. Azaroaren 8an Azkoitian izango den txapelketan lau pieza jo beharko ditugu: trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arin-arina.



**pr publi resa**

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net

**Radio  
Eibar**

CADENA  
**SER**

**104,0 FM**

# Eibartik unibertsitatera: odisea bat

Unibertsitatera ikastera doanak, ikasketez arduratzeaz gain, baditu beste hainbat ardurara, bertara heltzeko garraioa kasu. Eibartik kanpoko unibertsitatean ikasten dutenek hainbat erabaki hartu behar dute ikasketak egiteko: nola joan, noiz joan, zein prezioan joan edo bertan gelditu, adibidez.

**E**txean gelditu? Pisua alokatu? Residentzian geratu? Erabaki mardulak dira unibertsitatean ikasten hasi edo hasita dagoen gazte batentzat. Erabaki handia, beraz, ondo pentsatuta hartzea. Horretarako, kontu asko izan behar dira kontutan, adibidez, unibertsitatea non dagoen, bertara nola heldu daitekeen, zein prezio daukaten hara heltzen diren garraioek, zenbat denbora behar den hara iristeko, eta beste hainbat kontu.

## Azkarrago Gasteizera


Eibartik gazte asko irtetzen da, bai goizean, bai arratsaldean, Euskal Herrian dauden unibertsitate ezberdinetara. Gasteizen ikasketak egiten dituztenak, normalean, bertan geratzen dira lanegunetan bizi izaten; izan ere, orain arte handia zen errepidean leku batetik bestera egiten zen denbora (prezioa ere altuegia zen galdutako denbora kontuan

hartuta). Hala ere, Eibar-Gasteiz autopistari esker asko murriztu da hiri bien artean errepidean egin beharreko denbora; beraz, aukerak zabaltzen zaizkie ikasleei. Gasteizera joateko ikasleek eskaintza zabala daukate orain (06.00etatik 18.00etara autobus bat ordu gutxienez) eta denbora laburragoan egiten dute bidea.

Eskoriatzan Mondragon Unibertsitatean ikasten dutenek, Gasteizekoek bezala, Lurraldebusa erabiltzen dute euren helmugara iristeko. Hauek ere orduo, gutxienez, autobus bat izango dute Eskoriatzara joateko eta berdin itzulerarako.

## Bilbora aukera asko

Bilbo eta Leioan ikasten dutenek daukate han kokatuta dauden unibertsitateetara joateko aukera zabalena. Izan ere, BizkaiBus eta Eibarko Bikain enpresek autobusak eskaintzen dituzte hara joateko,



Unibertsitatera joateko hainbat egoera bizi dituzte gure herriko ikasleek. / EKHI BELAR

## Bilbora doazenek aukera gehiago dute Donostiara doazenek baino; Gasteizera joatea erosoago dago orain

beraz, hiriburu bizkaitarra eta Eibar ondo konektatuta daude. BizkaiBusek, adibidez, orduo eskaintzen du Eibartik Bilborako bidaia (Ermuatik ordu erdira) eta bere prezioa ez da gehiegizkoa (gainera, CrediTransa izanez gero merkealdia dago). Leioara joateko, bestetik, Ermuara joan behar da BizkaiBusen zerbitzua erabiltzeko. Hala ere, Bikainek Eibartik bertatik eskaintzen ditu, bai Bilborako, bai Leioako kanpuserako bidaiak.

## Donostiakoak "haserre"

Donostiarako bidaiena da, gehien bat, ikasle eibartarrak (eta ingurukoak) "haserre" dituenak. Zerbitzuen eskasiaz eta

hauen prezio altuaz dira kezu ikasleak. Bikain eta Lurraldebus dira zerbitzua eskaintzen dutenak, PESAre bitartez azken honek, eta 07.00etatik aurrera orduo gutxienez autobus batek bidaia egiten badu ere, ikasleek salatzen dute PESAre autobusak Amaran uzten dituztela eta lbaetako kanpusera joateko euren kabuz bilatu behar dituztela aukerak. "Autobus urbanoak hartu behar ditugu orain eta denbora asko galtzen dugu horretan, diruaz gain", dio Donostian diharduen ikasle batek. Izan ere, orain arte PESAk berak eskaintzen zuen Amaratik lbaetarako zerbitzua, baina kendu egin da orain (Amaratik lbaetara 08.25etan dago bat, eta alderantzizko bidean 14.10-etan). Haserre al daude ikasleak? "Bai, nahiko haserre gauden Donostiara joateko autobus zerbitzuarekin", dio Magisteritza ikasten diharduen batek. Odisea bihurtu da euren egunerokoa.

bide

— GIDA ETA ARMA-BAIMENAK  
— ZIURTAGIRI MEDIKUAK

Ariktxaneko zubia, 1 - behea (EIBAR) Tel. 943 200 501

*Aldez aurretik txandarik hartu gabe*



Euskaldunon Egunkariako bost langileren aurkako epaiketaren aurretik, bertako langile ohi eta Egunkariaren Aldeko Plataformako Ainara Argoitiarekin egon gara. Horren aurrean, hitzaldia eskainiko du Joan Mari Torrealdaik azaroaren 5ean, 19.00etan, Kultun. Egunkariaren aldeko argazkia egingo da herrian, eta bono eta kamisetak salduko dira (data gehienak ez daude zehaztuta oraindik).

**AINARA ARGOITIA** (Egunkariaren Alde):

## “Justiziarik ez dagoela agerian geratu da Egunkaria Auziarekin”

**- Sei urte igaro dira Euskaldunon Egunkaria itxi zene-tik. Zein momentutan aurkitzen da, gaur egun, Egunkaria Auzia?**

Auziak alde bi ditu, ezberdin-du egin behar direnak. Lehenengoan, sumario nagusian, bost lagun daude auzipetuta: Joan Mari Torrealda, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Ota-mendi eta Xabier Oleaga. Oraindik data zehatzik ez badago ere, azaroan espero da epaiketa egi-tea. Bigarregoa, bestetik, auzi ekonomikoari dagokio. Hemen, lehen sumarioko Torrealda, Uri eta Auzmendi, eta Fernando Furundarena, Jose Mari Sors, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal eta Begoña Zubeltzu daude auzipe-tuta. Hauei egiten zaizkie zigor eskaera handienak: 184 kartzela urte eta 235 milioi euroko zigorra eskatzen du Dignidad y Justicia elkarteak.

**- Prozesuak aurrera jarraituko duela uste duzue edo ez da epaiketa egitera iritsiko?**

Orain arte, aurreikuspen denak bete dira eta horrela jarraituko duelakoan nago. Fiskalak berak esan zuen ezin zela epai-

ketarik egin (eta hau azpimarratu nahiko nuke), ez baitzuen inolako frogarik akusatuen aurka, beraz, akusazio partikularren bidez soilik jarrai zitekeen aurrera. AVT eta Dignidad y Justiciaren herri salaketan oinarritzen da Juan Del Olmo epailea aurrera jarraitzeko. Beraz, puntu honetara heltzea, epaiketa eginez gero, sententzia kondenatzailea izango da eta seguru gaude baten bat kartzelan sartuko dutela. El Pais egunkariak Auzitegi Nazionalen duen korrespontsalak, adibidez, ez zuen ulertzen nola jarraitzen zuen prozesuak eta abar, baina ikusitakoa ikusita atzera egin du nolabait. Usain txarra dauka.

**- Sumario nagusiaren epaiketa orain egingo da. Normala da horrenbeste denbora igarotzea?**

Aspaldiko kontua da hau. Del Olmo epaileak 1993. urtean us-tez ETARI atzemandako paperak hartu zituen oinarri Egunkariaren kontrako salaketa egiteko. Hamar urtetan Espainiako Auzitegi Nazionalako hainbat epaile-ren eskuetatik pasa ziren pape-rak, tartean Baltasar Garzon, eta



Epaiketa aurreko zapatuan manifestazioa izango da Bilbon eta autobusak antolatuko dira Eibartik bertara joateko. / EKHI BELAR

inork ez zuen ezer ikusi, ezta salaketarik egin. Del Olmok bere kabuz hartu zuen erabakia, eta nahiz eta Madrilgo gobernuan aldaketak izan, inor ez da izan kapaz kontua atzera eramateko. Bola handiegia sortu da eta inor ez da ausartu aurka egiten. Justizia existitzen ez dela agerian utzi da, boterearen esku dagoen zerbait dela. Egunkaria Auziaz gain, asko dira oinarri politikoak dituzten auziak.

**- Nola ikusten duzu herritar eta erakunde ezberdinen mobilizazioa kontu honen gainean?**

Egunkariak babes handia jaso duela ikusi da. Ez dut nahi beste batzuk mintzea, baina inoiz jasotako mugimendu zabalenerakoena dela esango nuke. Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, alderdi ezberdinek, Espainiako Gorteetako politikari askok, Nazio Batuen Erakundeak, Amnistia Internazionalak, Herrialde Kataluniarretako erakunde eta pertsona ezberdi-

nek... askok eskaini diote euren solidaritatea Euskaldunon Egunkariari. Baliteke jendea nekakuta egotea hainbeste kasuren ganean euren solidaritatea eta laguntza ematen, baina beste ahalegin bat eskatuko nieke. Ez dakit mugimendu guzti honen eragina izango duen epaiketen aurrean, baina kalera ez urtetzek ez du gauza onik ekarriko. Euskara bultzatzeagatik daude Egunkariko pertsonak auzipetuta, beraz, jendeari elkartasuna eskatuko nieke.

**- Egunkariako langileen aurkako epaiketaz gain, badago beste salaketa bat: eurek jasandako torturak.**

Del Olmoren aurretik 25 pertsona pasa dira guztira, baina 19 izan ziren atxilotuak. Hori-etatik 5ek torturak salatu zituzten. Kasua Europako auzitegietara iritsi da Espainiako ate guztiak jo ostean, izan ere, Espainian ez da ikertu ere egin. Ezerezean gelditu da dena, hor dago, beste barik.

# EZTEIEN GEHIGARRIA



**22. zenbakia**

*2009ko udazkeneko gehigarria*

**PUBLIZITATEA: Itziar ALBIZU**

*eta Belen ULAZIA*

**Telefonoa. 943 20 67 76**

**Faxa. 943 20 28 72**

**publizitatea@etakitto.com**

# Jokatzeke modu egokiari erreparatuz

**G**aur egunean protokoloak agintzen duena nahikoa baztertuta baldin badaukagu ere, ezkonterako orduan oraindik ere bere pisua daukate egun horretan jokatzeke modu egokiak arautzen dituzten ohiturek. Askorentzat garrantziarik gabeko kontuak diren horiek zaintzea komenigarria izaten da, gonbidatu zein senitartekoeen artean beti egon ohi direlako horiek zaintzearen alde daudenak. Horregatik, jarreraian aipatuko ditugun egoera batzuetan behintzat protokoloak dioena gogoratzea ez zaio inori gaizki etorriko.

Elizara ailegatzeko orduan, adibidez, tradizioak dio ailegatzeko lehenak emaztegaiaren ama eta senargaiaren aita izan behar direla, amabitxia edo aitabitxia eurak ez baldin badira. Eurak arduratuko dira gainontzeko gonbidatuei harrera egiteaz. Harrera hori zeremonia hasi baino ordu erdi lehenago hastea gomendatzen dute. Ondoren, senargaiak, amabixiarekin batera, emaztegaiari eta aitabixiari ongietorria egingo diete. Edozein



arrazoi medio, emaztegaia senargaia baino lehen ailegatuko balitz, senargaia ailegatu bitartean emaztegaia ez da automobiletik irtengo. Elizara sartzen lehenak senargaia eta amabitxia izango dira; guraso, lagun eta beste gonbidatu guztiak atzetik sartuko dira eta, amaieran, denak barruan daudenean, emaztegaia eta aitabixia sartuko dira. Amabitxia se-

nargaiaren ezkerreko besotik helduta jogan ohi da, horregatik aldarearen eskumako aldean jartzea da ohikoena. Aitabixiak eliza barruan eskainiko dio emaztegaia senargaiari eta bere ezkerreko aldean ipiniko da. Ezkontza-horniak eramaten umeak egonez gero, horiek aitabixiaren eta emaztegaiaren aurretik sartuko dira elizara, euren aurretik.



Birjiñape, 1



**LORA DENDA Blanca**


943 20 88 47



**EZKONTZA tartak eta despedidetarako (ENKARGUZ)**

**ANTXON DEGUSTAZIOA**

-EIBAR-  
Tel. 943 20 63 22



Bidebarrieta, 1

**Laumar**

Tel. 943 20 16 26



**Izadi**

San Juan, 1  
Tel. 943 20 33 29



San Andres gozotegia

**Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu**






Bidebarrieta 28 - 20600 EIBAR  
Tel. 943 20 79 73

# KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4  
279 Postakutxa  
20600 EIBAR  
943 121 262  
943 127 334



*Edozein  
ospakizunetarako  
aukera*



[www.kantabriajatetxea.com](http://www.kantabriajatetxea.com)

**EZKONTZAK**  
**BATAIOAK**  
**JAUNARTZEAK**

ARRATEKO  
SANTUTEGIAREN  
ondoan aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,  
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,  
karta, enpresa bazkariak...



RESTAURANTE KANTABRIA  
KANTABRIA JATETXEA

**E**rromantizismoz betetako ospakizuna izanda ere, ez da komenigarria ezkontza ezkongai bien arteko kontratua dela ahaztea. Sinatutako dokumentuak lege-balioa du eta herrialde bakoitzaren legediak errekonozitu eta onartu egiten du.

Ezkontza egunaren aurretik edo ondoren, ezkongaiak notario baten aurrean ondasunen inguruko zehaztasunak jasotzeko aukera dute: ondasunak banatzea erabakiz gero, ezkongai bakoitzak ezkontza aurretik dituen guztien jabe izaten jarraituko du ezkontza apurtu ondoren ere. Beste aukera ezkontza-erregimen ekonomikoa zehaztea da. Elkarte ganantzialeari dagozkien artikulua Kode Zibilaren 1.344 eta 1.410 artikuluetan jasota datoz.



Elizan ezkontzea nahi izanez gero, ezkongaien parrokiatako bat aukeratu daiteke edo, bestela, beste edozein parrokiara jotzeko aukera ere badago. Ezkontza eguna baino 3 hilabete lehenago parrokia horretako oharretarako panelean ezkontza iragarri egingo dute. Bestalde, ezkondu aurretik prestaketa-ikastaroa eskaini ohi dute. Aurkeztu beharreko agirien artean, berriz, bakoitza bataiatu zuten parrokiari jaso daitekeen bataio-agiria dago.

Ezkontza zibilerako, berriz, Erregistro Zibilerako elkarrekin joan beharko dute ezkongaiak, honako agiriarekin: jaiotza zertifikatu literalarekin, erroldatze-agiriarekin, bietako batek sinatutako ezkontza-eskaerarekin eta eskaera egiten dutenen egoera zibilaren inguruko zinezko deklarazioarekin. Horrez gain, ezkongaiak 16 urtetik beherakoak, dibortziatutakoak, atzerritarrak edo errefuxiatuak izanez gero, kasuan kasuko agiri gehiago aurkeztu beharko dituzte.

**ROCA** Ezkontza egunerako guztia ...zure esku!



**KIRURI**

Loiola auzoa, 24 -AZPEITIA-  
**JATETXEA**

Telefona: 943 81 56 08 Faxa: 943 15 03 62  
E-maila: kiruri@wanadoo.es

**MARRODAN**

BITXITEGIA - ERLOJUDENDA

Tonbío Etxebarria, 24 - Tel: 943 207 304 - EIBAR

**F. PASCUAL** Arane, 6  
Telf. 943 20 61 64  
Faxa. 943 20 85 43  
20600 EIBAR

**VIRGINIA PASCUAL**  
Zubiaurre, 36 (behea)  
Tel. eta Faxa: 943 17 68 28  
www.cocinaspascual.com  
48260 ERMUA

SUKALDE ALTZARIAK  
BARNERAKO

**fasprint**

**Inprimategia**

**Ezkontza Gonbidapenak**  
txartelak, gutunak, albaranak,  
fakturak, papergintza orokorra...

fasprintei@yahoo.es - Tel./Faxa: 943 20 16 13  
Ego Gain 11 ac - EIBAR

*Lakett da nire edertasunaren sekretua*

**Lakett**

ESTETIKA  
MASAJEA

Zezenbide, 4  
943 53 00 66  
www.lakett.com

ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00. ZAPATUETAN: 09.00-13.00



## TERRAZA HANDIA DANTZARAKO ETA KOKTELETARAKO



2 suite jakuzziarekin  
4 gela hidromasajearekin  
Helbarrituentzat egokitutako gela

WI-FIA doan eraikuntza osoan

250 lagunentzako aretoa  
Era guztietako ospakizunak

Gela bikoitza (denboraldi ertaina): 60€  
Eguneko menua: 20€  
Karta: 36€



# Krabelin


## HOTELA-JATETXEA

Tel: 943 202 727 - Faxa: 943 208 991

Arrate auzoa, z/g  
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



**ESKAINNTZA ASTEBURU  
ZORIONTSUA**  
2 gau, 2 afari eta  
2 gosarirekin  
2 pertsonentzat  
150 € + %7 BEZ




# Ederrena izateko agenda osatzen

**I**noiz azalaren itxurak garrantzia izango badu, egun hori ezkontza eguna da. Baina egun horretan azal zoragarria erakutsi ahal izateko aurretik prestatzen joan beharra dago, hilabete lehenago hastea gomendatzen dute estetika arloko adituek.

Azal perfektua, aurpegi distiratsua, begirada sakona, ederki emango dion orrazkera... hamaika detaileri erreparatu behar dio emaztegaiak, egun horretan ederrena izateko, baina lasai hartu: estresak ez dio bat ere mesederik egingo zure azalari eta, gainera, egin beharreko tratamenduak noiz eta nola egin denboraz ez planifikatzeko aitzakiarik ez dago. Helburua egun berezi horretan ederenen artean ederrena izatea da.

Edertasun-agenda osatzeko orduan kontuan hartu beharreko hainbat kontu ezin dira ahaztu: masajeak, aurpegirako tratamendu bereziak, orrazkerarik egokiena aukeratzea, makilajerik egokiena hautatzeko probak, manikura eta pedikura ezinbestekoak dira. Horra profesionalak proposatutako egutegia:



- Hiru hilabete aurretik: estetika-zentru-  
ra lehenengo bisita egitea gomenda-

tzen dute, horrela bakoitzaren premiak aztertu eta horren arabera egutegia prestatzeko.

- Hilabete eta erdi aurretik: tratamenduetan erabiliko dituzten produktuek ahalik eta eraginik handiena izan dezaten, eta makilajeak itxura ezin hobea izan dezan, azala alde aurretik ondo garbitzea komeni da. Edozein modutan ere, garbiketari arreta berezia eskaini behar zaio, gaizki eginez gero infekzioak, orbainak eta bestelako arrastoak ager daitezkeelako. Azala ondo garbitu ondoren, ondo hidratatu eta zaindu beharra dago.
- Hilabete aurretik: makilaje-proba egiteko sasoia da. Itxurarik naturalena ematen duen makilajea da aproposena.
- Hiru egun aurretik: depilazioa egiteko unea da. Hanka, besape eta bestelakoez gain, ez ahaztu bekainak, espresio-arentzat ezinbestekoak dira-eta.
- Egun bat aurretik: manikura egiteko txanda; tonu beixak eta larrosa argiak dira egokienak.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

# CAPI

**MASAJEAK**      **AURPEGI TRATAMENDUAK**

Osteopatia      Laser bidezko fotogaztetzea  
 Kiromasajea      Peeling sakona  
 Reflexologia      Zimurrak  
 Teknika      Lifting-a  
 metamorfikoak      Bekain eroriak  
 Akupuntura      Betazalak  
 orratzik gabe      Begietako poltsak  
 Zelulitisaren      Mantxak  
 aurkako bonoak      Couperosis  
 (5 eta 10 saiorako)      Akne  
 Barizeak      Birsendotzea

**LASER DEPILAZIOA**

Bizkarra .....	120€
Ezpaina (saioa) .....	10€
Izterondoak + besapeak ....	100€
Hanka erdiak .....	120€
Hanka erdiak + izterondoak ....	160€
Hanka osoak .....	200€
Hanka osoak + izterondoak ...	250€

**EZTEI BONOAK / BETILEEN LUZAPENA  
 MIKROPIGMENTAZIOA / SOLARIUMA  
 MAKILLAJE IKASTAROAK**

# FOTO JAUJA

www.fotojauja.com


## EIBAR

URKI 17 BEHEA      T.L.F. 943.202716  
 M. 688647344

# EZKONTZA 2010

Tel. 943 207 047 Calbeton, 1 - 1. ~

# CASTANO



Estetika  
Depilazioa  
Diodo laserrarekin  
Luzapenak  
Visajismoa  
Emaztegaiak  
Makillajea, Argazkilaritza eta Bideoa

Bidebarrieta, 20 (Galeria Komertziala) **GIZONEZKOEN**

- Punta-puntako orrazkerak
- Ile tratamenduak

## ILEAPAINDEGIA

ORDUA  
HARTZEKO:  
Tel. 943 20 16 48



## ezkongai eta gonbidatuetan adituak



Makillajea

●  
GROFLUDO  
esklusiban

●  
Manikura

943  
702024

Urkizu, 11  
Solairuartea



styling  
touch  
therapy

# DOLLS

943 033 967  
J. Etxeberria, 5 - behea

Ilea zaintzen profesionalak. Ilea osasuntsu eta distira naturala edukitzeko lan egiten dugu. Probatu produktu naturaleko gure gama berezia. Eskatu sinestezinezko deskontuak lortzeko gure txartel bereziak. Extentsioak: grapa, keratina eta pegatzekoa (teknika berria).

# GADIFOI

ARGAZKILARITZA - BIDEA  
Iraia Galarza




ILEAPAINDEGIA  
LANTZKA

# RELLINO

ARRAGUETA 20  
ITZULI 2014 2015 2016  
ITZULI 2017 2018 2019  
2020 2021

**VENTAGLIO SISTEMA IRAULTZAILEARI ESKER, SAIO BAKARREAN ILE PERFEKTUA, OSASUNTSUA, KIZKURTU GABEKOA ETA MOZTU BARIK. ZURE ILEARENDAKO GAZTETASUN TRATAMENDU BERRITZAILEA.**

**O**raindik ere, eraztuna bat egitearen sinboloa da. Eraztuna janzteko hatzari Erdi Aroan “mediko-hatza” deitzen zioten, sasoi hartan hatz hori bihotzari zuzen-zuzenean lotzen zitzaion bakarra zela pentsatzen zutelako.

Gaur egun ezkontza-eraztunetan hamaika aukera dago bitxitegietan: zapalak, ertz-biribildunak, urre-lana dutenak... Aukeratutako soinekoak linea geometrikoak baldin badauzka, klasikoetatik aldendu eta angeludun itxurako eraztuna aukeratu daiteke. Soinekoak linea klasikoari jarraitzekotan, berriz, hobe itxura klasikodun eraztuna aukeratzea. Ezkondu aurretik erabilitako konpromiso-eraztunek ere balio dezakete, ondo leundu eta grabatu ondoren; izan ere, ohikoena eraztunaren barrualdean ezkontza-egunaren data zein ezkongaien izenak grabatuta izatea da.

Beste kontu guztietan bezala, eraztunak prestatzeko orduan sasoz ibiltzea komeni da: kontuan izan kasu askotan eraztuna norberaren neurrira egokitzeko premia izango dela eta, gainera, inskripzioak grabatzeko egun batzuk behar izango dituztela.

Ezkontza-eraztunaren inguruan hainbat kondaira sortu izan da. Fideltasun eta elkartzearen sinboloa dira eta, ia beti urrezkoak izaten dira, baina ez dute zertan urre-kolorekoak izan; metal-protzentaiaren arabera, gorriak edo berdeak ere izan daitezke. Bestalde, zilarra gero eta gehiago hedatzen doa. Eraztunak elkartrukatzek konfidantza adierazten du.



Ezkontza-eraztunak erostea senargaiaren ardura izan ohi da, aitabitxiak eraztunak oparitzeko asmorik agertzen ez badu, behintzat. Edozein modutan ere, zeremonia ospatuko den tokira abiatu aurretik eraztunak ezkontza-aitabitxiaren esku daudela ziurtatzea ez dago soberan, azken orduan ezustekorik ez izateko.


San Pelayo, 4 -ERMUA-  
Tel. 943 17 00 28

1978tik

**Senén**

[www.joyeriasenen.com](http://www.joyeriasenen.com)

PANDORA TISSOT swatch CALYPSO LUXENTER FESTINA SEIKO LOTUS VICEROY



# Rhein ibaiaren ertzean

Alemanian, Rheinland-Pfalz lurraldean eta Hessenekin mugan, aurkitzen da Worms deituriko hiri. Mahastiz inguratuta, Rhein ibaiak bustitzen du hiri lasai hau. Hango unibertsitatean ikasle bezala dabil Asier Irure eibartarra. “Oraingoz pozik nago, hemengo bizimodua ez da batere txarra”.

Rheinheseneko ardoa fama-tua bada ere, ez dago poteoa egiteko ohiturarik. “Horrela, ulerterraza da alemaniarrek kontzertu, eskubalo, foball, hockey edo eskiari dioten lehialtasuna denborapasa gisa”. Alemanek kirola maite dutela azpimarratzen du Asierrek, “eta ba-koitza bere talde kuttunaren ja-rraitzaile amorratua da”.



Mikel Orozko Eibarko lagunarekin, bere unibertsitateko ‘International Day’ egunean.


**O**rain dela ia urte bi era-baki zuen Asier Irurek master bat ikastea. Alemaniera kontrolpean zeukan eta Beethoven, Nietzsche, zein Einsteinen lurraldean ikas-teko aukera aztertu zuen. Horrela, 2008ko irailean International Management deituriko masterra ikasteari ekin zion FH Worms unibertsitatean. Marketing eta Business Relations espezialitatea aukeratu zuen eta horretan arituko da otsailera arte. Eta gero zer? “Ez dakit zehazki. Baliteke lanpostu on bat aurkitzea, eta hemen edo beste hiriren batean luze gelditzea. Izan ere, ekonomiaren egoera askoz hobea da Europa iparraldeko herrialde garatuetan”.

Worms lasaia dela dio Asierrek. “Batzutan gehiegi”. Bere berbetan kaleetan ez dabil inor 20.00etatik aurrera eta ‘bizitza’ hori botatzen du faltan eibartarrak, “jendearen berotasuna, gertutasuna, fideltasuna, umorea eta borondatea”. Hala ere, nahiz eta bere iritziz Alemanak norberakoiak eta hotzak izan, ikasleen arteko giroa eta harremana aparta da. “Unibertsitatean ‘Taberna’ izeneko taberna bat dago, eta martitzen eta eguenetan juerga egiteko aukera izaten da”.

Garagardoa eta saltxitxak “ikur bedeinkatuak” diren herrialde honetan, bertako herri-tarrak isil azaltzen dira normalean Asierren berbetan, “baina edan egiten badute gogaikarriak eta iskanbilatsuak dira oso”. Esan bezala, garagardoa sakratua da.

### Klima jasangarria

Alemaniarrek hotzak badira, hango klima ez da gutxiago. “Urtarrilean -14° Z izan genituen, baina hezetasuna ez denez handia, jasangarria izan zen”. Gainera, Worms ingurua Alemaniako tokirik eguzkitsue-na da eta hori da bertako ma-hatsen kalitate onaren arrazoia.



Asier Irure Heidelberg hirian urtarrileko goiza pizten den bitartean.

### Euskal ordezkaria Wormsen

Alemaniako hiririk zaharrene-tarikoa da Worms, Köln eta Trier-ekin (Karl Marx-en jaioterr-riarekin) batera. Hiri eta herriak beste garai batzuen aztarnaz josita daude eta oso gustuko du hori Asierrek. Bestetik, biztanle-riaren aniztasuna azpimarratzen du Irurek, mundu osoko jendea biltzen baita Alemanian, “bizi aukera hobeen bila”.

Munduko jende guzti horren artean euskaldunak ere badaude, Asier kasu. Bere unibertsitatean ‘International Day’ egiten da maiatzero eta ikasle batzuk euren nazioen ordezkari gisa euren kulturen berezitasunak azaltzen dituzte stand batzuetan. “Janari, edari... adierazga-

riak eskaintzen dira musutruk”. Beraz, teorikoki ‘Spanien’ izen-pean eta ez-ofizialtasun osoz, Euskal-standa eraikitze-ko aukera izan zuen Asierrek, espainiar eta frantsesen alboan, “har-ro”. Mikel Orozko lagunaren eta bere anaiaren laguntza jaso zuen Asierrek dena prestatze-ko. “Euskal-stand arrakastatsuan pintxoak eta Euskal Herriari buruzko katalogo erabilgarriak eskuragai izan ziren”.

Euskal Herriko zatitxo bat, behintzat, eraman zuen Asierrek Worms aldera, baina gauza gehiago eramango lituzke. “Sagardotegiak, jai giroa, pote-oa, pintxoak, mendiak, hondartzak, ordutegiak eta lehen aipatu-tako jendearen arteko harremana”. Kontrako bidea egiteko, hau da, Alemaniatic Euskal Herri-ri ekartzeko, honakoak aukeratzen ditu: “Garagardoa, Flammkuchen pastetxa, unibertsitateak, egoera ekonomiko-a, errepideak, ibai garbiak, erdi-aro tradizioa, kontzertu eta musikaldiak, eta ‘Weihnachtsmarkt’ izeneko gabonetako merkatuak”. Ardo bero gozoa dastatzen omen da bertan.



Uribek sasoi txarra pasa zuen Eibarren.

## Eibar-Leonesa domekan 17.00etan

**LIDERGOAN ONDO SENDOTUTA DAGO VIADEROREN TALDEA** azken partiduan Mendizorrotzan Alavés taldeari 0-1 irabazi eta gero. Garaipen garrantzitsu horren ondoren, asteburu honetan iaz Eibar KE-ko entrenatzailea izandako Josu Uriberen taldeak bisitatuko gaitu, hori bai Bartzelona handiaren aurka Kopan 0-2 galdu eta gero. Leongo taldea ez dabil ondo Ligan eta sailkapeneko azken postuetan jarraitzen du; horregatik, eibartarrak favorito argiak dira, gehiago oraindik jokalariek guztien parte hartzea baieztatzen bada, leonaturik ez baitago.

## Sei eibartar probintziako bakarkako xake txapelketan

**HILAREN 24-AN ZARAUTZEN HASI ZEN TXAPELKETA HORREK ABENDUAREN 5-ERA ARTE** iraungo du eta bertan 39 xakelari izango dira borrokan, euretatik lau gure herrikoak:

Jon Arana, Haritz eta Julen Garro, Edu Olabe eta Diego Olmo. Txapelketan dihardu ere, epaile nagusi moduan, Mikel Larreategik. Asteburu honetan Haritz eta Julen anaien arteko lehia da aipagarriena eibartarrei dagokienez eta, momentuz, Olmo da gure ordezkari onena.



## Gimnasia erritmikako nazioarteko torneoa bihar Ipuruan

**SAN ANDRES TORNEOA INOIZ BAINO AZKARRAGO JOKATUKO DA XI. EDIZIO HONETAN.** Baina mailari eutsiz beste behin ere, 23 klub izango dira Ipuruan, 230 gimnasta inguru. Estatuko bedertzitzi komunitateko ordezkariak jardungo dute bihar arratsaldean kiroldegiko pistan eta, eurekin batera, hor izango dira ere Moskuko selekzioko senior eta junior taldeek, tartean Daria Anenkova hamar urteko promesa gaztea.

Talde guzti horiei aurre egiteko, Ipuruako gimnastek hiru talde osatuko dituzte: Merino, Tejedor, Jauregi, Jiménez eta Afonso, 1. mailan; Laskurain, Ibaibarriaga, Gamundi, Alonso eta Horna seniorretan; eta Bedia, Fernández, Yarza, Egaña, González eta Alegría infantiletan.

## Gutxi falta izan zitzairen rugbilariei Vigori irabazteko

**BIGARREN ZATIAN OFIZIO GEHIAGO ERAKUTSI ZUTEN GALIZIARREK UNBEN JOKATUTAKO PARTIDUAN** eta, azkenean, 17-21 nagusitu zitzairen Isasak prestatzen dituen jokalariei. Hierros Anetxe Eibar Rugby Taldekoak, dena dela, maila ona erakutsi zuten euren



### 13.30etatik aurrera

Arratsalde osoa hartuko duen torneoa 13.30etan hasiko da, junior eta senior mailako errotazio birekin. Fase horren ondoren, ordu erdiko atsedena izango da eta 17.15etan infantil, 1. maila eta ohorezkoa-

ren 1. errotazioaren ordua izango da eta, jarraian, 18.20etan hasita, azken hauen bigarren errotazioarekin hasiko dira. Urtero lez, goi mailako gimnastika erritmikoa ikusteko aukera paregabea eskaintzen zaigu kiroldegian.

zaletuen aurrean domekan jokatutako norgehiagokan eta, 1. zati borrokatuaren amaieran, 5-3koa erakusten zuen markagailuak. Bigarren zatia hasterako entseguarekin, gaine-

ra, 12-3 ere ipini ziren; baina, ondoren, galiziarrek agintea hartu eta jokoan nagusitu ziren. Armaginek, dena dela, puntu bonusa eskuratu dute sailkapen nagusirako.



## Asola-Berrikoen jardunaldi arrakastatsua

**GURE HERRIKO BOLATOKIKO ORDEZKARIAK AURREKO ASTEBURUAN BAINO ASKOZ HOBETO JARDUN ZUTEN EUSKADIKO HIRU-TXIRLO BOLA** txapelketaren 2. jardunaldian. Barinagan jokatutako honetan, lau bolarik beste haina txirlo bota zituzten eta euretako hiru

Asola-Berrikoak izan ziren: Juan Luis eta Sergio Rodríguez eta Igor Vila. Horren ondoren, Juan Luis Rguez. da ordezkari onena eibartarren artean, liderrengandik puntu bakarrera. Hirugarren tiraldia Sorluzeko San Andreseko bolatokian jokatuko da bihar arratsaldean, 17.00etatik aurrera.

## Deporren pelotarien jardunaldi ezin bikainagoa

**KLUBEN ARTEKO TORNEOAREN BARRUAN JOKATUTAKO PARTIDU GUZTIETAN GARAILE IZAN ZIREN** Klub Deportiboko ordezkariak azken asteburuan. Horrela, jubenil mailako Agirresarobe-Erik bikoteak 22-11 irabazi zion Zestoakoari eta Unamunzaga-Agirrebeña senior mailakoak 22-15 Lasarte-Oriakoari, Astelenan jokatutako jaialdian. Azpeitian, bestalde, 1. mailako seniorretan, Etxaniz-Egaña garaile izan zen (22-14); torneoaren 2. fasean, Arrillagak hartuko du Etxanizen tokia, azken hau kirofanotik pasatu beharko baita. Bengoetxeak, bestalde, Lezamako torneoaren partidua aurrera atera zuen eta gauza bera egin zuen Kluben arteko torneoaren buruz-burukoan.


Bihar, 17.00etatik aurrera, partidu bi jokatuko dira Astelenan: hasteko, kadeteetan, Ruiz-Andonegi Hondarribiako ordezkarien aurka; eta, ondoren, Egaña-Bengoetxea amezketarrekin nor baino nor.



Irujo eta Bengoetxea VI.aren arteko partidu garrantzizkoa jokatuko da domekan Astelenan.

## Elejalde Corralejoko maratoi-erdian

**JOSU ELEJALDEK ERRONKA BERRI BATI EGIN ZION AURRE ZAPATUAN, CORRALEJOKO DUNETAKO PARKE NATURALEAN** jokatzen den Fuerteventura International Half Maratonari, hain zuzen. 21 kilometroko proba horrek ez du bide erraza aurrera egiteko, hondarrezko ibilbidea baitauka, horrek ematen dion zapora afrikarrarekin. Eibartarrak 21. postuan amaitu zuen eta, bere mailakoen artean (beteranoak), 9.a izan zen. Helmugara iristeko ordubete, 42 minutu eta 6 segundo behar izan zituen.



## Arrateren Lagunak plataforma sortu dute

**MARTITZENEAN AURKEZTU ZUTEN PLATAFORMA HORREK INGURUKO ENPRESEK KLUBA DIRUZ LAGUN DEZATEN** sustatzea izango du helburu. Diru laguntzak bi motakoak izango dira: bazkide babesleek 40.000 euro


emango dituzte; eta babesle kolaboratzaileek 10.000. Arratek prestatutako ekimenari Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Aldundiak eman diote babesa eta denak izan ziren udaletxean egindako aurkezpenean.

Aurrekoarekin lotuta, Asobal mailako taldeak Gipuzkoa osoan jardungo du hainbat entrenamendu egiten herriz-herrri, probintzia osoko zaletuei eskubaloia gerturatzeko eta taldearekin harremanak estutzeko. Gaur bertan Tolosara ziren joatekoak. Julian Ruizen taldeak atsedena izango du asteburu honetan, Asobal Ligari dagokionez, Cuencarekin Ipuruan galdu eta gero gauzak hobetzeko balioko diona.



**La Movida eibarresa**  
 Kirola atseginez egunero Borja Rodríguezekin, arratsaldeko 3etatik 4etara  
**90.7 Fm**

Bere begiek distira berezia daukate eta bere begirada argazkietan islatzen da. Carlos Truco salvadortarrak 'Miradas' argazki bilduma du erakusgai Topalekuan azaroaren 1era arte (lanegunetan 19.00etatik 21.00etara, eta asteburuetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara).



**CARLOS TRUCO, argazkilaria:**

## "Ezberdinak dira hemengo eta El Salvadorreko begiradak"

**- Nolokoa da 'Miradas' izeneko erakusketa?**

Bartzelonan argazkilaritza ikasketak egiten ibili naiz aurren, eta urtariletik urrira arte ateratako argazkiak daude ikusgai. Bartzelonako Pepe Otalen txotxongilo tailerrean, Bartzelona inguruan eta hemen egindako argazkiak dira.

**- Zergatik 'Miradas' izena?**

'Mirada de Geppetto' izena izan behar zuen erakusketak, txotxongiloen argazkiak bakarrik ipini nahi nituelako; baina, erakustoki handia izanda, argazki gehiago sartu ditut.

**Zer moduz zure lehenengo erakusketa?**

Pozik nago harrerarekin. Hasi aurreko astean erakusketa buru-belarri prestatu nuen, baina argazkiak aurretik zeuden prest. Ondo dago bai ikasteko, bai nire burua ezagutzera emateko. Bartzelonan gogor egin nuen lan, proiektu eta lan ugari egin nituen.

**- Zer motako lanak egin dituzte, bada?**

Hainbat webgunetan ikusgai daude nik egindakoak: www.bilborrollers.com, www.magma-productions.com...

Hamabi urte daramatzat patinatzen eta gai horren inguruan argazki asko atera ditut.

**- Noiztik zabilta argazkilaritza munduan?**

Hasi berria naiz. 2007an hartu nuen kamera eta berotu egin nintzen. 2008an Bartzelonan ikasten hasi nintzen eta orain autodidakta moduan dihardut. Bartzelonan dagoen Kataluniako Argazkilaritza Ikasketen Institutuan egin ditut ikasketak eta bueltatu behar naiz. Gustuko dut Bartzelona, El Salvadorreko kapitalekoa naiz eta hiri handiak gustuko ditut. Hala ere, Eibarren bizi naiz, oso gustura.

**- Ezberdinak dira El Salvadorreko eta hemengo begiradak?**

Oso ezberdinak. Horregatik begiratzen ditut hainbeste paisaiak, oso ezberdinak direlako. Adibidez, palmendoz jositako hare beltzeko hondartzak oso ikusiak ditut, baina hemen dagoen mendi eta hondartzen arteko kontrasteak asko harritzen nau. Baita hotzak ere.

**- Zein proiektu daukazu?**

Erakusketak egin. Eibarrera uztailen etorri nintzen eta hainbat proposamen jaso ditut. Pop talde batek euren argazkiak egiteko eskatu didate eta beste batek book bat egiteko. Erretratuak egiten hasi nahiko nuke.

**- Beste ekintza artistikorik jorratzen duzu?**

Magoa, malabarista, patinatzailea eta kazetaria naiz.




## Deporreko argazkilariek Sari Nazionala jaso dute Andorran

**KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA BATZORDEKO KIDEEK ESPAINIAKO ARGAZKILARITZA KONFEDERAZIOAK EMANDAKO** argazkilaritza elkarteei dagokien Sari Nazionala jaso zuten joan den asteburuan Andorran. Duela urte bete eman zen jakitera saria euren eskuetan eroriko zela eta aurreko asteburuan jaso ahal izan zuen Bakarne Elejalde presidenteak.

Klub Deportiboak argazkilaritzaren gainean egindako lan guztiaren saria da hau, azken urteetan hazi egin den lana. Gero eta kide gehiago ditu taldeak eta anitzak dira antolatzen dituzten ekintzak. Gainera, taldea osatzen duten argazkilarien kalitatea handia da, azken Indalezio Ojanguren sarietan ikusi den bezala, non Virginia Arakistain eibartarrak sari nagusia jaso duen.

## 'Sanandres 2009' kartel saritua Elgoibarrera

**ELGOIBARKO JOSE MANUEL ESNAL URDANPILLETA DA 'SANANDRES 2009' KARTEL LEHIAKETAREN IRABAZLEA**




'Ferixia koadro baten barruan sartzeko modukua!' kartelarekin. 28 partaideren artean suertatu zen garaile elgoibartarra. Beste maila bietan, bestetik, eibartarrak izan ziren nagusi. 11 eta 14 urte bitartekoen mailan Jone Bengoa Urizar izan zen irabazlea 'Obra ekologikoa' kartelarekin, eta 10 urte artekoen German Gonzalez Idiaquez 'Txokorra' kartelarekin.

## 1937an jaiotakoak


**URTE HORRETAN JAIOTAKOEK, AURREKO URTEOTAN EGINDAKOARI JARRAITUZ,**

bazkaria egingo dute azaroaren 14an. Aldameneko irudikoak Nere eta Ande dira eta euren aitxita-amamak gerra denporan jaiotakoak dira eta aurrerantzean bazkariaren inguruko informazio zabalagoa ematen joango dira. Talde argazkia atera eta piskolabisaren ondoren Arrate hotelean egingo dute bazkaria.

Joan nahi dutenek azaroaren 11rako 50 euro sartu beharko dituzte Kutxako kontu korrante honetan: 2101 0035 160127075661.







PORTALEAKO ERAKUSKETA ARETOAK 'GUREAK ERE BADIRA UME HORIEK' IZENENKO

## 'Gureak ere badira ume horiek' erakusketa

**PORTALEAK JASOKO DU GAURTIK AURRE-RA** azaroaren 15era arte. Erakusketaren helburua adintxikiko atzerritarren errealitatera hurbiltzea da argazki, testigantza eta albisteen bitartez.

Gipuzkoako SOS Arrazakeriak antolatu du ekintza Eusko Jaurlaritzako Inmigrazio Zuzendaritza eta Eibarko Udaleko Gizartekintza Sailaren babesarekin. Benjamin Atutxa Gizarte Ekintzetako Programen Batzorde buruaren berbetan, "gizarte ekintza multikultural batean elkarbizitza harmoniko bat eraikitzeko, informazioa jasotzea eta ezagutza funtsezkoak dira". Horrela, adintxiki hauen gaineko errealitateari buruz hitzegiteko momentuan informatuta egoteke, jendea erakusketara joateko animatzen du Atutxak.

## I. Gazte Lokalen Arteko Txapelketa abian


**URRIAREN 23-AN EMAN ZITZAION HASIERA EIBARKO I. GAZTE LOKALEN ARTEKO TXAPELKETARI FUTBOLIN LEHIAKETAREKIN.** ...eta kitto! Euskara Elkartearen ekimenez sortutako txapelketa da hau eta gazte lokalen artean dinamika eta giro ona sortzea da helburua. Lehen jardunaldi honetan, adibidez, giro on hori antzeman zen eta gazteek hurrengo lehiaketan parte hartzeko deialdia luzatzen dute. Partehartzeko gogoia eta 18 urte

baino gehiago izatea da beharrezkoa. Izena emateko ...eta kitto! Euskara Elkartera hurbildu, Urkizu 11-solairuarterean. Partehartzeak sari interesgarriak ekartzen ditu, bai lokalarentzat, bai norbanakoarentzat.

### Egutegia

Gaur jokatu da bigarren lehiaketa Urkin, Real Madridaren Peña alboan dagoen lokalean. Horrela, 18.30etatik aurrera ping-pongear arituko dira parte-hartzaileak. Datorren ba-

rixakuan, azaroaren 6an, Play Stationean (Sing Star jokoan) lehiatuko dira lokal ezberdinak Legarreko lokal batean (zehazteke) 18.30etatik aurrera. Lau garren astean, azaroaren 13an, mus txapelketa jokatu da Jardinetan 34an dagoen lokalean, mezkita ondoan. Azaroaren 21ean, bestetik, final nagusia egingo da Armeria Eskolan, eta bertan parte hartu duten gazteen artean sari banaketa, finalak jokatu, bazkari lehiaketa, kontzertua eta jokoak egingo dira.



## Artetaren kontzertu arrakastatsua

**SOSTOA ABESBATZAREN SORRERAREN 25. URTEURRENAREN INGURUAN ANTOLATUTAKO EKITALDIEN ARRAKASTAK** aurrera dirau. Urriaren 17an Abesbatzaren Eguna ospatu zuten 100 bat lagunek (koralistak, koralista-ohiak eta lagunak elkartu ziren) eta primeran eman zuten eguna: erakusketa bisitatu ondoren, txikiteo musikala egin zuten eta, bazkaria, berriz, Arrate hotelean izan zuten. Aurreko zapatuan, berriz, San Andres eliza erabat bete zuen Ainhoa Artetaren kontzertuan sopranoarekin batera 'Haurtxo polita' abesteko aukera izan zuten Sostokoak.

## San Andres Bertso Jaialdirako sarrerak salgai

**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO SAN ANDRES BERTSO JAIALDIA** azaroaren 27an egingo da Portaleko areto nagusian 22.30etatik aurrera. Bertara joateko sarrerak azaroaren 2an, astelehenean, jarriko dira salgai 5 eurotan Kultur, Sagar Bitza eta Deporrean. Urtero-urtero bertsolaritza munduko aurpegi ezagunak biltzen dira bertso jaialdian, eta aurten ez da gutxiagorako izango. Bertsolaritzan muturra sartzan hasita dauden gazteak dira normalean jaialdian ari-

tzen direnak, eta aurten Madalen Arzallus, Miren Amuriza, Jokin Uranga, Ibai Esoain eta Amaia Agirreraren artez gozatu ahal izango da.



## laburrak

### UEU-REN IRUDI BERRIA

Gaur arratsaldean, 18.00etan hasiko da modu ofizialean ikasturtea Udako Euskal Unibertsitatean, Markeskuan egingo den ekitaldiarekin: Lore Erriondo UEUKo zuzendariarekin batera Pruden Gartzia historialari eta UEUKo bazkideak hartuko du parte, 'UEUren izaera bikoitza' izenburuko hitzaldia eskainita. Ekitaldian UEUK bere irudi berria aurkeztuko du.

### ZAPATUKO IPUINA

Liburutegiaren ohiko programazioari jarraituta, bihar '1.728 animalia kontu' izenburuko ipuina eskainiko du Gorringo taldeak umeen liburutegian, Kutxaren babesarekin. 18.00etan hasiko den saioa 5-9 urte bitarteko umeentzat pentsatutakoa da.

### ANTZERKIA TALLARRAN

Gaur gauean, 22.00etan antzerki emankizuna egingo da Tallarra gaztetxean: 'Karakolaren gaua'. Sarrerak euro bi balio du.

Oier  
Araolaza

## Kalabaza hutsik

Asteburu honetan Halloween ospatzen da mundu erdian. Estatu Batuetan izugarrizko hedapena izan du ospakizunak eta filmeen bidez mundu osora zabaldu da. Gure inguruan ere gero eta ohikoagoak dira Halloween festak taberna eta diskoteketan eta mozorro denda eta txinatar bazarretan egunotan ez da beste konturik.

Ba Halloween jatorriz euskal festa bat da. Euskalduna bakarrik? Ez, noski, ia Europa osoarena, baina baita Euskal Herrikoa ere. Europako etorkinek eraman zuten Ameriketara, eta hemen ihartzen joan zen neurrian joan zen han sendotzen. Eta orain, Amerikarren festa dela pentsatuta hasi gara berriz ere ospatzen. Nortasun gutxikoak gara gero.

Noski, hemen ez zaio inoiz Halloween deitu, Arimen eguna baizik. Toribio Etxebarriak idatzi zuen: *“Animen egunian, oitura zarra zan Eibar-en, jan da eran tabernan eittia moskurtu arte. Baita kaleko neska mutillak, alkarregaz, baserrietan gastaña erriak jatia”*.

Mutrikun adinekoek gogoratzen omen dute gaztetan ortuetatik kalabazak lapurtu, hustu eta barruan kandelak jarrita kaleetan, atarrietan jartzen zituztela. Badira urte batzuk Mutrikun Arimen egunaren ospakizuna berpiztu zutela: Gaba Beltza izendatu zuten, larunbat gauean finkatu eta izugarrizko indarra hartu du urte gutxitan. Marka da gero gure tradizioak Hollywood-iker biziberritzea!

## Jardunaldi Mikologikoak eta artisau azoka asteburuan

**EGUAZTENEAN EGINDAKO PRENTSAURREKOAN, ASTEBURU HONETAN EGINGO DIREN XI. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK ETA ARTISAUTZA AZOKA AURKEZTU ZITUZTEN** Deporreko Mendi Taldeko Nestor Lópezek, Eibart elkarteko Marta Irustak eta Arrate Bidasorok eta Maria José Telleria Kultura zinegotziak. Eurekin batera Toribio Etxebarria kalean orain egun batzuk zabaldu berri duten BBK-ko Imanol Santos egon zen, ekitaldi bietan erabiliko dituzten karpak bankuak lagatakoak izango baitira.

Artisauen ordezkariak azaldu zuten, *“gure elkarte orain dela 5 urte sortu zen eta orain arte urtean birritan antolatu izan ditugu horrelako azokak: Euskal jaiaren inguruan bata eta Gabonetan bestea. Hala ere, bihar goizean, 10.00etatik aurrera artisautza azoka ipintzeko aukera eman zaigu eta han izango gara, 14 bat artisau gure produktuak erakusten eta saltzen. Besteak beste Maite Arriaga (pinturak), Iratxe Unanue (margotutako kamisetak), Eskulan (beira), Nieves (panpintxoak), Marta Irusta (bitxiak) eta Arrate Bidasoro (aromaterapia) izango gara eta, horrez gain eta berritasun gisa, Munitibarretik esku-pelotak eta Elgoibarko Argiñek makrameak ekarriko dituzte”*.

### Perretxiko erakusketa domeka goizean

Klub Deportiboaren eskutik urtero antolatzen diren Jardu-



Artisau azoka lehenengoz izango da jardunaldiei laguntzen. / SILBIA HERNANDEZ

naldi Mikologikoek, berriz, 11. edizioa beteko dute aurtengoa. Nestor López jardunaldien antolatzaileak azaldukoari jarraituta, *“sasoi batean barixakuan hitzaldia antolatu ohi genuen, baina jendeak interes handirik ez zuela erakusten ikusita, azken aldian zapatu eta domekara mugatzen ditugu ekitaldiak: zapatu goizean autobus bi irtengo dira, herriko ikasle eta haiei lagunduko dieten helduekin, perretxikoak biltzera joateko. Mota bakoitzetik ale bi hartzeko esaten diegu umeei eta arratsaldean, berriz, eurak arduratzen dira perretxikoak garbitu eta sailkatzeaz, Aranzadi elkartetik etorritako kideen laguntzarekin”*.

Perretxikoak batzera doazenen artean hainbat sari banatuko dituzte, baina sari-banaketa ekitaldia domekan izango da, 13.30etan. Aurretik, baina, bezperan batutako perretxikoak ikusgai ipiniko dituzte Toribio Etxebarria kalean eta 11.00etatik aurrera perretxikoak jateko aukera ere izango da. Pintxo-

kin lortutako dirua, betiko moduan, herriko elkarteren bateri emango diotela aurreratu zuen Lópezek. Bestalde, perretxikoak batzen dituztenei dei egin nahi diete, erakusteko moduko perretxikoak izanez gero Deporrera eramateko.

## EUSKARAREN

**JUSTIZIA EUSKALDUNTZEKO ATZERAPAU SUAK BERRIRO.** EAEko Auzitegi Nagusiak Justizia euskalduntzeko 2008ko dekretuko hainbat atal baliogabetu ditu eta, horri erantzuteko, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak sententziari helegitea jartzea aztertzen dihardu. Administrazioarekiko Auzietako Sailak bertan behera laga dituen artikuluen artean, euskara jakitea lanpostu “berezi batzuetan” soilik exijitu daitekeela, eta ez lanpostu generikoetan, ondorioztatzen duena da. Justiziaren euskalduntzea eremu geografiko bakoitzeko euskararen erabilaren arabera izatea eskatzen zuen atala ere bertan behera geratu da sententziaren ondorioz (atal horren arabera, Donostian Justiziako funtzionarioen %51,7ri, Bilbon %32,09ri eta Gasteizen %27,78ri euskara jakiteko exijituko zitzaie, adibidez) eta baita herritarrei zuzendutako dokumentu oro euskaraz eta gazteleraz tramitatu behar zirela ere zehazten zuena.


## TXOKOA




Zapatuan jasotako perretxikoak ikusgai izango dira domekan T. Etxebarria kalean. / LEIRE ITURBE

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, MALEN Esparza, gaur zazpi urte beteko dozuz-eta. Aitxitxa-amama, amatxo, aitatxo eta Asierren partez.




Zorionak, GAIZKA, atzo lau urte bete zenduaz-eta. Muxu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, MAIA Alzelai Cid, hillaren 28xan hiru urte bete zenduazelako. Gure printzesarentzako, etxekuen partez.



Zorionak, HODEI, martitzenian hamar urte egin zenduazelako. Etxekuen partez.



Zorionak, IRATI Zarrua, azaruaren 4an hiru urte beteko dozuzelako. Familixa guztiaren, batez be, amamaren partez.

## zinea Coliseoan

**30ean, 22.00etan; 31n, 19.30 eta 22.30etan**  
**1ean, 19.30etan; 2an, 20.30etan**

### "Michael Jackson's..."


**Zuzendaria:** Kenny Ortega  
**Aktoreak:** Michael Jackson, Orianthi...



Michael Jacksonek hainbat kontzertu prestatzen ziharduen hil aurreko egunetan. 2009ko ekainean Los Angelesen egindako entseguetako irudiak batu eta "This is it" ikuskizuna zer nolakoa izango zen ezagutzeko aukera izango da.

### "Frozen river"

**Zuzendaria:** Courtney Hunt  
**Aktoreak:** Melissa Leo, Misty Upham, Charlie McDermott, Mark Boone...



Ray Eddyren gizonak alde egin du; etxea erostekotan zeuden eta horretarako dirua lapurtu dio. Seme alabekin, bakarrik eta diru barik, eskaintza arriskutsua egingo diote: inmigranteak bere kotxean pasatzea, izoztutako laku handia zeharkatuta...

### Amañan

#### "Hanna Montana"

**Zuzendaria:** Peter Chelsom  
**Aktoreak:** Miley Cyrus, Emily Osment, Jason Earles, Melora Hardin...



Miley-ren bizitza erotzeko modukoa da, egunerokotasuneko ikasketak eta pop izarra izatea ez dira bateratzeko erraza. Hori ikusita, aitzak Tenesse-ra eramango du, beste errealitate bat ezagutu dezan, baina han ere gertatuko dira ezustekoak...

### Ego Ibar

#### "The visitor"

**Zuzendaria:** Tom McCarthy  
**Aktoreak:** Richard Jenkins, Hiam Abbass, Haaz Sleiman, Danaï Gurira...



Aspertuta bizi den unibertsitateko irakasle batek bizitza aldatzea nahi du, baina ez daki zein den hartu beharreko bidea. Egun batean, bikote bat bere etxean bizitzen aurkituko du eta horrek bizitza berria zer nolakoa izan daitekeen erakutsiko dio...

# DENBORAPASAK

SUDOKUA

	9		6	2	7			
	8	2						6
1				8				2
		7			5	6		
	5			6	8	2		
		1	3			9		
			2					
7	3		8	1			2	
2		5		4		1		9

4	9	2	8	6	7	1	3	5
5	8	3	1	2	9	7	8	4
1	7	8	4	5	3	6	9	2
9	5	6	3	8	4	2	1	7
2	3	7	9	1	5	4	6	8
8	4	1	2	7	6	9	5	3
3	1	9	5	4	2	8	7	6
6	8	4	7	3	1	5	2	9
7	2	5	6	9	8	3	4	1

AURREKOAREN EMATZA

### JAIOTAKOAK

- Ekhi Irisarri Alamino. 2009-X-17.
- Zaid Ahdaddou. 2009-X-20.
- Noha Tagle Salvetti. 2009-X-24.

### HILDAKOAK

- M<sup>o</sup> Teresa Barrutia Alzibar. 82 urte. 2009-X-21.
- Vicente Leal Corón. 71 urte. 2009-X-27.
- Isabel Barrocal García. 77 urte. 2009-X-27.

## horoskopoa

**ARIES**

Txoritxo batek sekretu bat aipatuko dizu eta kostako zaizu gordetzea. Eutsi tentazioari eta kontatzeak izan ditzakeen ondorioetan pentsatu.

**TAURUS**

Goizean altxatzen zarenetik gogotsu ekingo diozu datozen egunotan. Eta hori kaxkar egiten duzula lo... Energiatz beterik ibiliko zara.

**GEMINI**

Ez etsi hain laster. Emaiozu aukera bat gehiago, ikusiko duzu nola ondo erantzuten duen. Egoera azkartzea ez da egokiena orain.

**CANCER**

Gogorra baino, burugogorra zara. Tira, pentsatzen duzunarekin bat doazen gauzak egiten dituzu behintzat, nahiz eta kolpe handiak jaso.

**LEO**

Zergatik ez duzu armairuan eskua sartzen eta behar ez duzun guztia zakarrontzira botatzen? Garbiketa egitea ez litzaizuke gaizki etorriko.

**VIRGO**

Ez da aste erraza izango zuretzat. Gauza asko egiteko eta erabaki handiak hartzeko ordua izango da. Urduri ibiliko zara.

**LIBRA**

Beste pertsona batentzat oso garrantzitsua den gauza bat apurtuko duzu. Zer egin horren aurrean? Zu izan zarela esango diozu ala ez?

**SCORPIUS**

Sendagileak hainbat gauza debekatuko dizkizu denbora baterako eta ez duzu begi onez hartuko erabakia. Lasai, zure onerako egiten du-eta.

**SAGITTARIUS**

Printzesa baten moduan tratatu zaitzate nahi duzu, baina, sentitzen dut, ez zara printzesa bat. Hala ere, jasotzen duzun tratua txarra al da?

**CAPRICORNIUS**

Zuri axola ez bazaizu ere, berarentzat oso garrantzitsua zen egin ez zenuten hori. Gehiago hartu behar dituzu kontuan besteak.

**AQUARIUS**

Ilusio handia egingo dizun opari eder bat jasoko duzu. Merezki duzunaren seinale, noski. Askok estimatzen zaitu jendeak.

**PISCIS**

Ez zara pertsona batekin ados egongo, baina ez zara ausartuko zure iritzia ematen. Bakoitzaren iritzia askea da baita hau besteen aurrean azaltzea ere.

**Barixakua 30****UEUKO IKASTURTE HASIERA**

**18.00.-** Ikasturte hasiera ekitaldia UEUn. Parte hartuko dute: Lore Erriondo UEUko zuzendaria eta Pruden Gartzia historialari, euskaltzain urgazle eta UEUko bazkidea. Markeskuan.

**GAZTE LOKALEN ARTEKO TXAPELKETA**

**18.30.-** Ping-pong txapelketa. Urkin (Peña Madridistaren alboko lokalean).

**INAUGURAZIOA ETA SARI BANAKETA**

**19.00.-** Indalezio Ojaguren XXII. Argazki Lehiaketako erakusketaren inaugurazioa eta sari-ematea. Portalean.

**XVII. MUSIKALDIA**

**20.00.-** Cor Infantil San Cugat (Katalunia). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

**ANTZERKIA**

**22.00.-** 'Karakolaren gaua' antzezlan. Tallarra gaztetxean.

**Zapatua 31****XI. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK**

**08.15.-** Ikastetxeetako haurrak perretxiko bila joateko irteera.

**IKASTAROA**

**09.00.-** 'Komunikazio eraginkorren artea' ikastaroa. Markeskuan.

**ARTISAU AZOKA**

**10.00.-** Artisautza Azoka, Eibart elkartearen eskutik. Toribio Etxebarria kalean.

**MANIFESTAZIOA**

**12.00.-** ABC lantegikoan manifestazioa. Untzagatik hasita.

**ZAPATUKO IPUINA**

**18.00.-** '1.728 animalia kontu', Goringoren eskutik (5-9 urte bitartekoentzat). Umeen liburutegian.

**ERRABAL JAIALDIA**

**22.30.-** Mokoomba (Zimbabwe) taldearen kontzertua. Espaloia kafe antzokian (Elgetan).

**Domeka 1****XI. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK**

**10.00.-** Perretxiko erakusketak.  
**11.00.-** Perretxiko dastaketaren hasiera.  
**13.30.-** Sari banaketa ekitaldia. T. Etxebarria kalean.

**UMEENDAKO ZINEA**

**17.00.-** 'Hannah Montana'. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

**XVII. MUSIKALDIA**

**20.00.-** Mixed Chamber Chori Krog (Eslovenia). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

**Astelehena 2****TAILERRA**

**18.00.-** 'Berdintasun harremanak', Pepa Bojó-rekin. Andretxean.

**IKASTAROA**

**19.00.-** 'Argazkilaritza digitala'. Portalean.

**Martitzena 3****IKASTEN**

**10.00.-** 'El secreto de Stradivarius' hitzaldia, Ander Arroitauregiren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

**Eguaztena 4****IKASTAROA**

**17.00.-** 'Ordenagailuz lagundutako itzulpena'. Markeskuan.

**IKASTAROA**

**19.00.-** 'Argazkilaritza digitala'. Portalean.

**Eguena 5****IKASTAROA**

**09.30.-** 'TELP tailerra'. Markeskuan.

**IKASTAROA**


**15.00.-** Zoru-pelbikoa indartzeko ikastaroa. Ipuruako jubilatutako etxean.

**EGO IBAR ZINE KLUBA**

**17.30 eta 21.00.-** 'The visitor' (Zuz: Tom McCarthy). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

**HITZALDIA**

**19.00.-** 'Egunkaria libre', Joan Mari Torrealdairerkin. Kultur.

**diru-laguntzak**

**UMEAK ESKOLARA 2009.** Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994-I-1etik 2003-XII-31ra bitartean jaiotako umeak. Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

**DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.**

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984-I-1etik 1993-XII-31ra bitartean jaiotakoak). Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

**ELKARTASUN BEKAK 2009.**

Eskaerak: Azaroaren 20ra arte, Pegoran.

**NAZIOARTEKO LANKIDETZARENTZAT 2009.**

Eskaerak: Azaroaren 18ra arte, Pegoran.


## erakusketak

– **Urriaren 30era arte**

**EL EIBAR Y SU AFICION** argazki erakusketa.  
Untzaga Jubilatuen Etxean.

– **Urriaren 31ra arte**

**ANGEL BOLUNBURU**ren argazki erakusketa.  
Klub Deportiboan.

**JOSE ANTONIO GONZALO HERNANDEZ**en argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

**MIKEL OROZKO**ren argazki erakusketa.  
*El Ambigú tabernan.*

– **Azaroaren 1era arte**

**TRUCO**ren argazki erakusketa. *Topalekuan.*  
**JOSE LUIS MARTÍNEZ**en argazki erakusketa.  
*Debako Turismo Bulegoan.*

– **Azaroaren 15era arte**

**SOS ARRAZAKERIA**ren ‘Geureak ere badira adingabe horiek’ erakusketa. *Portalean.*  
**INDALEZIO OJANGUREN XXII. ARGAZKI LEHIAKETA**ko argazki erakusketa. *Portalean.*

## ikastaroak

– **Reiki ikastaroa (1. maila).**

Noiz: Urriaren 31n eta azaroaren 1ean. Izen-ematea eta informazioa: 665743217 telefono zenbakian.

– **Arabiar gozogintza tailerra.**

Noiz: Azaroaren 4an eta 5ean, 19.00etatik 21.00etara Portalean. Izen-ematea: Juan San Martin Liburutegian.

– **Menpekotasuna daukatenen senitartekoentzat prestakuntza.**

Noiz: Azaroaren 10ean eta 12an, Egogain Zaharren Egoitzan, 15.00etatik 18.00etara. Izen-ematea: Azaroaren 6ra arte, Pegoran.

– **Eramateko janaria prestatzeko ikastaroa.**

Noiz: Azaroaren 17tik aurrera, martitzen eta eguenetan, 19.00etatik 21.00etara Portalean. Eskerak: Azaroaren 2tik 13ra, Pegoran.

## lehiaketak

– **San Andres bertso-paper lehiaketa.**

Lanak aurkezteko epea: Azaroaren 6ra arte. Informazioa: ...eta kittol-n (Urkizu, 11 - solairuartera), 943200918.

– **Mendiko argazki lehiaketa.**

Lanak aurkezteko epea: Azaroaren 26ra arte, Morkaiko Elgoibarko Mendizale Elkartearen egoitzan edo morkaiko@morkaiko.net helbidean. Informazioa: www.morkaiko.net

## famaziak

**30, barixakua**

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

**31, zapatua**

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

**1, domeka**

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

**2, astelehena**

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

**3, martizena**

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)  
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)

**4, eguaztena**

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**5, eguena**

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

**6, barixakua**

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

## telefono jakingarriak

SOS deiak .....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas .....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren .....	902 54 32 10
Pesa .....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduo. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduo. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduo. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduo. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.50, 10.50, 12.50, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapateria: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapateria: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.50 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.50. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdio). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduo. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55-etik 21.55-etera orduerdio. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduo.

## tren ordutegiak

**EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduo. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduo. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara orduo. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduo.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Bidebarrieta kalean pisua salgai. 90 m<sup>2</sup>. Sartzeko moduan. 24.000.000 peze-ta. Tel. 946-820458 edo etxeasal@live.com.
- Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, jangela, komuna eta ganbara. Tei-latu eta fatxada berriak. 200.000 euro. Tel. 627-635247.

### 1.2. Errentan

- Logela alokagai Eibarren. Tel. 669-175981.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 690-980846.
- Pisua alokagai Bidebarrieta, 28an. 2 logela. Kanpora begira. Tel. 652-764566. Begoña.
- Osakidetzako langileak Eibarren logela hartuko luke alokairuan. Tel. 692-114352. Karmele.
- Bikote arduratsua Donostian pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 616-813097.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

### 3.2. Alokagai

- Otaola Hiribidean 60 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai (emergentziatzeko-argiak, sutearen aurkako ateak, extintoreak...). Tel. 635-734261.
- Lokala Eibarren alokagai. 180 m<sup>2</sup>. Argitsu eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.
- Garaje marra alokagai Urkizun. Tel. 609-453946.
- Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Apalekin. Prezio interesgarria. Tel. 630-391112.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da autonomo moduan eraikuntzan jarduteko. Erreferentziak. Tel. 605-800582.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-329979.
- Emakumea eskaintzen da 15.00etatik aurrera ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 691-532893.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 666-008974.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 619-176223.
- Mutila eskaintzen da kamioi, C eta garraio publikorako kametekin. Tel. 663-656621.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-482478.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 697-702158.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde, gauz edo asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-252150.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 699-653874. Cristina.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 664-881835.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-966611.
- Emakumea eskaintzen da astelehentik ostegunera goizez lan egiteko (kamarera moduan, garbitzen... Tel. 680-223378. Gina.
- Mutila eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-198411.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-250527.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu, pegorak garbitu edo baserrian lan egiteko. Tel. 648-196651 edo 652-047223.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 670-831279.
- Gizona eskaintzen da astelehentik ostegunera garbiketa lanetarako. Tel. 635-048037.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Interna edo externa. Tel. 675-421933 edo 666-771151. M<sup>a</sup> Estela.
- Neska eskaintzen da arratsalde umeak zaindu edo kamarera lanetarako. Tel. 697-939085.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Tel. 943-171583 edo 608-474923.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari-laguntzaile moduan eta abarretarako. Tel. 690-156040.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 678-305927.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 663-786976.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 610-936839.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 638-938307.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 691-692964.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 655-384477.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Tel. 636-172765.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edo konponketa lanetarako. Tel. 680-674323.

### 4.2. Langile bila

- Akademia baterako irakaslea behar da (Inglesa, Matematikak, Fisika eta Kimika, eskolarako laguntza). Tel. 652-763264 edo m.urteagamv@hotmail.com.
- Kamarera behar da egun osoz lan egiteko. Kontratuarekin. Tel. 653-019962.
- Elgoibarko Izarra elkarrekin euskera teknikaria behar du. Tel. 943-741746. Amaia.
- ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klase partikularrak ematen ditut, EGA eta perfilak prestatzeko. Tel. 620-608065.
- Neska euskaldunak klase partikularrak emango lituzke. Tel. 617-844142.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Bebe-car kapazoa eta silla salgai. Tel. 616-801304.
- Ileapaindegiko altzariak salgai. Tel. 615-700184 edo www.ebay.es
- Umeendako kotxe-silla eta maxi-coxia salgai. Arrue markakoa. Urdina. Egoera onean. Tel. 616-327019.

# Kalitate Turistikoaren Q-a

Euskadin honezkero 267 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua, instalakuntzak eta gestioa zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q-a. Berezigarriak, klasifikazio ofiziari erreparatu gabe, enpresa turistikoetan eskusiboki eta Kalitate arau batzuen barruan aplikatzen diren produktuaren zein zerbitzuaren eskakizunak jasotzen ditu. Azken batean, bezeroen asebetetzerako eta dituen itxaropenen betetzerako bermea da.

Horrekin batera, exigentzia maila txikiagoa baina epe luzerako konpromisoa duen negozio txikienei bereziki zuzendutako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorrotasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.

ESTHER FACCHIN ESNAL

Zarautzeko Turismo Bulegoko kalitate arduraduna:

## “Sistema bati jarraituz lan egiteak enpresaren gestioa hobetzen du”

*- Zergatik egin duzue turismoaren sektorearekin lotutako sistema eta kalitate-programetako batzuen aldeko apustua?*

Turismo Bulegoko zerbitzua hobetzeko aukera paregabea zela iruditu zitzaigun.

*- Zertifikatutako Kalitate Turistikoaren Q-a bezalako kalitate sistematik nolako abantailak ekarri dizkio zure erakundeari?*

Zerbitzu profesionala eta kalitatea eskaintzen duen entitate ezagutua izatea.

*- Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne fun-*

*tzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura kontuetan?*

Ezarpenak gure funtzionamendua analizatzeko eta hobetzeko datu gehiago eman dizkigu. Orain sistematikoki egiten dugu lana, ezarri ditugun prozedurei esker.

*- Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?*

Eskuorriak eskaerara egokitu ditugu, seinalastapena hobetu dugu eta sektoreko enprekin dugun harremana hobetu dugu.

*- Zer esango zenieke turismo arloko*

*profesionalei Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenarako animatu daitezten?*

Sistema bati jarraituz lan egiteak enpresaren gestioa hobetzen du. Bestalde, kalitate sistemari esker pertsonalaren inplikazioa suspertzen da eta bezeroak asebetetzea lortzen da. Lana da, baina merezi du!

*- Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatuarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?*

Noski! Berez, sektoreko enpresak bultzatzen ari gara Jardunbide Egoien Eskuliburua lantzerako Kalitate Turistikoaren Q-a landu aurretik. Momentu honetan Zarauzko 33 enpresa ari dira.

*- Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?*

Zalantzarik gabe! Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria ezaugarri ezaguna da eta enpresaren bereiztasuna nabarmentzen du. Gainera, Eusko Jaurlaritza egiten ari den kanpainari esker gero eta ezagunagoa izango da.

*- Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan lantutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenuzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?*



Prozedurak idazteko lana funtzioa izan da. Brruko lana suspertzeko sortutako dinamikak eta gure bezeroen asebetetzea neurtzeko garrantzi handia izan dute gure zerbitzua hobetzeko. Beste arlo batean ere aurrerapen handia nabaritu dugu, hau da, biltegiaren kudeaketan.

*- Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzue edo sartzeko asmoa duzue?*

Aldaketak baino, pertsonalaren formakuntza jarraitzea eta iradokizunak kontuan hartzea ezinbestekoak dira Turismo Bulegoko kudeaketa hobetzeko eta bide honetatik jarraitzeko asmoa dugu. Bestalde, bulegoko hainbat arlotan 5S sistema ezartzen ari gara.

**Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:**


**Jardunbide egokirako programak:** helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-konzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude.

**Kalitate Turistikoaren Q-a programa:** bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 267 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

**EFQM Bikaintasun eredu:** erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 17 establezimendu daude Euskadin.



MONUMENTU ARTISTIKOA




# LASA JATETXEA



*250 LAGUNENDA KO  
JANGELA*

.....  
*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK  
ospatzeko toki bikain batean*



**Ozaeta Jauregia**  
**Tel. 943 76 10 55**  
**Faxa: 943 76 20 29**  
**[www.restaurantelasa.com](http://www.restaurantelasa.com)**  
**BERGARA**

